



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abuztuaren 31n

64 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak oxigenoterapia eta bestelako terapien zerbitzurako kontratua desegitea eta berriro esleitzea”ri buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (18. or.).

---

**G saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Aranguren Ibarreko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1997ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. Aurrekontuaren kitapena (4. or.).
  - IV.2. Ondare-egoeraren azalpena (4. or.).
  - IV.3. Legezketasuna (4. or.).
  - IV.4. Egoera ekonomiko eta finantzarioa (4. or.).
  - IV.5. Hirigintza (4. or.).
- V. Finantza-egoerak: 1997ko aurrekontuaren kitapena (5. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (6. or.).
  - VI.1. 1997ko aurrekontu-betetzeari buruzko iruzkin orokorrak (6. or.).
  - VI.2. Finantza-egoera 1997ko abenduaren 31n (6. or.).
  - VI.3. Kudeaketari buruzko gomendioak (7. or.).
  - VI.4. Gorabeherak (9. or.).
- VII. Hirigintzaren kudeaketa (9. or.).

VII.1. Arau Subsidiarioak eta haien aldaketak (9. or.).

VII.2. Hirigintza jarduketak (10. or.).

**Eranskina:** Udalaren organigrama 1997ko abenduaren 31n (16. or.).

### **I. SARRERA.**

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak 1997ko urriaren 22an erabakita eta "Izquierda Unida-Ezker Batua" Parlamentari Taldeak eskatuta, erabaki zen Kontuen Ganbarari eskatzea "Aranguren Ibarreko Udalak kudeaturiko hirigintza politikari buruzko fiskalizazio txosten bat".

Eskaera horrekin batera, Parlamentari Talde horren idazki bat erantsi zen, non Ganbararen lanek zehaztu beharreko helburu edo eginkizunak finkatzen baitziren; honela laburbil daitezke:

1. Hirigintza arloko legedia noraino betetzen den.

2. Nafarroako Gobernuak nola jardun duen legezketasunaren betetzea babesten duen entitate eta udal plangintza behin betiko onestearen erantzulea den aldetik.

3. Hiri lurzoruan aplikaturiko jarduketa irizpide orokorrak lortzea.

Hori guztia 1991tik hasi eta 1997ra bitarteko epeari buruz. Horrekin batera, gainera, epe horretan buruturiko hirigintza jarduera guztiei buruzko 13 hirigintza espediente erantsi ziren.

Gero, 1998ko otsailean, Aranguren Ibarreko alkateak Kontuen Ganbarari eskatu zion aurreko lanaren osagarri 1997ko "Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioari buruzko auditoretza" egin zezan.

Bi eskari horiek aintzat hartuta, Ganbarako Lehendakaritzak biak batera hartu eta txosten bakarra egiteko erabakia hartu zuen, hain zuzen

ere bi alderdi horiek –hirigintzazkoa eta finantzak-batera aztertzeke.

Aranguren Ibarreko Udala Iruñerrian dago, Foru Komunitateko hiriburutik 4 kilometro eskasera, eta 3.265 zuzenbidezko biztanle ditu –1986an 1.200 biztanle inguru–; ondoko entitate hauek osatuta dago:

- Mutiloagoiti (kontzeju ohia)
- Mutiloabeiti (kontzeju ohia)
- Arangurengo kontzejua
- Labioko kontzejua
- Taxoareko kontzejua
- Zolinako kontzejua
- Ilundain, Lakidain eta Gongorako jaurerria (herriak)

Esan beharra dago ia eskumen guztiak Ibarreko Udalak eskuordetuta dituela; hori jarduera aitzindaria da Nafarroan zerbitzu publikoak arrazionalizatzeko prozesuan.

Udalak ez du erakunde autonomorik ez tokiko enpresarik ere, eta Iruñerriko Mankomunitatean –uraren ziklo integrala eta hiri hondakin solidoen kudeaketa– eta Esteribar, Uharte, Aranguren eta Eguesibarrek osatzen duten Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean sarturik dago. Langileei dagokienez, 1997 urtearen bukaeran 10 langile finko eta 22 aldi baterako langile zituen, betez ere gizarte-enpleguan ari zirenak.

## II. HELBURUAK

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearekin eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearekin bat etorritik, Aranguren Ibarreko Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta 1996ko ekitaldiko Gastu eta Dirusarreraren aurrekontu betetzea fiskalizatzeko lana burutu dugu.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakiokeen legediaren barruan, funtsean aurrekoak daude baina ondokoak ere aipatu behar dira: apirilaren 2ko 7/85 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua, kontratazio administratiboari eta hirigintzaren kudeaketari buruzko arau erregulatzaileak eta orobat, Nafarroako Toki Erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea hurrengo gaiei buruzko gure iritzia ematea da:

a) Udalaren eta honen menpeko erakundeen 1997ko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 1996ko abenduaren 31n zegoen ondare-egoera agertzea, eskuarki aplikatzen zaizkion kontabilitate-printzipioen arabera.

c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa legezkotasun printzipioaren arabera garatu den ala ez aztertzea.

d) Udalaren egoera finantzarioa 1997ko abenduaren 31n.

e) Hirigintza arloan arazoiz eta legedia betez jardun ote den.

## III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa programari jarraituz, Aranguren Ibarreko Udalaren (hemendik aurrera, Udala) 1997ko ekitaldiko fiskalizazio txostena burutu du.

Udalak bere eragiketak ia soilik aurrekontu kontabilitatean erregistratzen ditu, baina 1998 urterako aurreikusita dago Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra ezartzea. Egindako lana, beraz, dirusarrera eta gastuen kapitulu ekonomiko ezberdinak aztertzean oinarritu da eta antolamendu, kontabilitate eta barne kontrolako alderdiak aztertu dira.

Hirigintza arloan, alde batetik, espedienteen laginketa bat begiratu da, haien izapidaketa eta haietan legea bete ote den aztertuz; beste aldetik, hirigintza arauetan bildutako aurreikuspenen garapenaren betetzeari buruzko azterketa orokorra egin da. Arlo horretan, gure jarduketa ia soilik fiskalizazioaren eta kontrol ekonomiko eta finantzarioaren ikuspuntutik burutu dugu, Ibarreko hirigintza diseinuaren berezko alderdiak edo azterturiko ekintza eta prozeduren balio juridikoa baloratzeraz sartu gabe.

Lana burutzeko Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko fiskalizazio-printzipio eta -arauak jarraitu diegu, eta egoeraren arabera eta Udalera aurretik igorri zen galdetegiaren bitartez antzeman ditugun arazoetarako beharrezko jo ditugun proba guztiak aplikatu ditugu.

Muga gisa aipa daiteke kontabilitate orokorrik ez izateak eragina izan duela Udalaren ondare egoera aztertzeke garaian. Beste aldetik, ez dugu aztertu orokorrean aplikatu behar den hirigintzazko marko erregulatzailea; gure lana marko partiku-

larrean eta bereziki Udalaren marko propioan oinarritu dugu.

Udalaren antolamendua, barne kontrola, eraginkortasuna eta ekonomia hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkin eta gomendioak ere biltzen ditu txostenak.

Zelaiko lana 1998ko martxotik maiatzera bitartean burutu da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko langileei lana burutzeko eman diguten laguntzarengatik.

#### IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren esparruan, 1997 ekitaldiko Aranguren Ibarreko Udalaren aurrekontu kitapena aztertu dugu.

Gure azterketan, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak sektore publikorako onetsi zituen auditortza-arau eta -prozedurak aplikatu ditugu.

Egindako azterketaren ondorioz, ondoko iritzia azaldu nahi dugu:

##### IV.1. AURREKONTUAREN KITAPENA

Erantsi dugun 1997ko aurrekontu-betetzearen egoerak ongi islatzen ditu fiskalizaturiko ekitaldian Udalak burutu dituen eragiketak. Salbuespen bakarra da 1 eta 2. kapituluetan ez dela errespertatu gastuetarako kredituen izaera mugatzailea.

##### IV.2. ONDARE-EGOERAREN AZALPENA

Ondare-kontabilitaterik ez dagoenez eta udalaren inbentarioa eguneratu gabe dagoenez –1993koa da–, ezin dugu iritzia eman Udalaren 1997ko abenduaren 31ko ondare-egoerari buruz.

##### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkontasun printzipioaren arabera da; hala eta guztiz ere ez-betetze batzuk antze-man ditugu aurrekontuen arloan eta inbertsioetako administrazio-kontratazioaren arloan.

##### IV.4. EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Aranguren Ibarreko Udalak 1997ko abenduaren 31n egoera finantzario saneatua agertzen du, zorrik ia batere gabe; aurrezki garbi handia du –116 milioi pezeta– eta diruzaintzan diru-gerakin nahikoa –122 milioi pezeta–. Horrek bidea em-

nen dio etorkizuneko inbertsioei aski lasaitasun finantzarioarekin ekiteko.

#### IV.5. HIRIGINTZA

Oro har, Udalak garatu duen hirigintzako kudeaketa indarreko legediaren arabera da, behar diren dokumentuen bermea du eta baliabide finantzarioen iturri garrantzitsua da. Hala eta guztiz ere, orokorrean ezarri diren hirigintzako betebeharrak bete behar dira, inbertsio-jarduerak administrazio-kontratazioari buruzko arauen arabera izan behar dute, kontabilitateari buruzko jarraipen egokia egin behar da eta balorazio garrantzitsueta ahaleginak egin behar dira gutxienez bi adituren txostenak eskuratzeko.

Laburbilduz, ondorio orokor gisa esan dezakegu Aranguren Ibarreko Udalak:

- Modu egokian kudeatzen ditu bere aurrekontuak administrazioaren ikuspuntutik, baina ondokoei ekin behar die:

a) Toki Sektore Publikoan aplikatzeko den Kontabilitate Plan Orokorra ezartzea, udal jarduerari buruzko informazio tresna integratzailea den aldetik.

b) Barne kontroleko mekanismoak indartu behar ditu, batez ere Diruzaintza eta Administrazio Kontratazioaren arloetan.

c) Aztertu behar du ea zerbitzu administratibotako langileak egokiak ote diren oraingo beharretarako.

- Finantzen ikuspuntutik, egoera erabat saneatuta dauka. Hona horren arrazoiak:

a) Ia zorrik ez du.

b) Finantziarioa, batez ere, bere baliabideen eta hirigintza baliabideen bitartez lortzen du.

c) Funtzionamendu gastuen kontrola.

d) Lurzoruaren udal ondare zabala.

e) Inbertsio berrien kudeaketa proiektatu eta arrazionalizatzen da.

- Udalaren hirigintzako kudeaketa egokia da, baina betebeharrak bete beharko lituzke.

Azkenik, azpimarratzekoa da Aranguren Ibarra osatzen duten toki entitate publiko guztien bateratze prozesuak arrazionaltasuna eta eskala-ekonomia garrantzitsuak ekarri dizkiela zerbitzu publikoei. Nafarroako udal mapak jarraitu beharreko egitura eredu du, askoz ere egokiagoa egungo beharretarako.

**V. FINANTZA EGOERAK****V.1. AURREKONTU BATERATUAREN KITAPENA. 1997KO EKITALDIA (pezetatan)**

| Gastuen kapitulua                     | Hasierako aurrekontua | Aldaketak          | Behin betiko aurrekontua | Aitorturiko obligazioak | Betetzea, % |
|---------------------------------------|-----------------------|--------------------|--------------------------|-------------------------|-------------|
| 1. Langileri gastuak                  | 87.292.507            | (3.665.000)        | 83.627.507               | 84.734.893              | 101         |
| 2. Ohiko ondasu. eta zerbitz. erostea | 114.087.500           | 2.280.000          | 116.367.500              | 119.177.856             | 102         |
| 3. Finantza gastuak                   | 400.000               | –                  | 400.000                  | 306.756                 | 77          |
| 4. Ohiko transferentziak              | 26.156.160            | (800.000)          | 25.356.160               | 25.106.612              | 99          |
| 6. Inbertsio errealak                 | 192.616.959           | 324.133.453        | 516.750.412              | 423.750.514             | 82          |
| 7. Kapital transferentziak            | –                     | –                  | –                        | –                       | –           |
| 8. Finantza aktiboen aldaketak        | –                     | –                  | –                        | –                       | –           |
| 9. Finantza pasiboen aldaketak        | 506.028               | –                  | 506.028                  | 506.028                 | 100         |
| <b>Gastuak, guztira</b>               | <b>421.059.154</b>    | <b>321.948.453</b> | <b>743.007.607</b>       | <b>653.582.659</b>      | <b>88</b>   |

| Dirusarreraren kapitulua            | Hasierako aurrekontua | Aldaketak          | Behin betiko aurrekontua | Kitaturiko eskubideak | Betetzea, % |
|-------------------------------------|-----------------------|--------------------|--------------------------|-----------------------|-------------|
| 1. Zuzeneko zergak                  | 89.000.000            | –                  | 89.000.000               | 78.955.365            | 89          |
| 2. Zeharkako zergak                 | 57.000.000            | –                  | 57.000.000               | 80.357.275            | 141         |
| 3. Tasak eta bestelako dirusarrerak | 60.366.000            | –                  | 60.366.000               | 68.612.875            | 114         |
| 4. Ohiko transferentziak            | 76.600.000            | –                  | 76.600.000               | 101.827.143           | 133         |
| 5. Ondare dirusarrerak              | 21.680.000            | –                  | 21.680.000               | 14.807.249            | 68          |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea  | 65.000.000            | –                  | 65.000.000               | 32.260.610            | 50          |
| 7. Kapital transferentziak          | 51.000.000            | 6.000.000          | 57.413.154               | 25.579.993            | 45          |
| 8. Finantza aktiboen aldaketak (*)  | –                     | 315.948.453        | 315.948.453              | 315.948.453           | 100         |
| 9. Finantza pasiboen aldaketak      | –                     | –                  | –                        | –                     | –           |
| <b>Dirusarrerak, guztira</b>        | <b>421.059.154</b>    | <b>321.948.453</b> | <b>743.007.607</b>       | <b>718.348.963</b>    | <b>97</b>   |

(\*) Aurkezpen ondorioetarako, kapitulua honetan, aldaketa gisa, 1996ko diruzaintzako gerakina, 6. kapituluko obrak finantzatzen dituen, sartu da.

**VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK****VI.1. 1997KO AURREKONTU-BETETZEARI BURUZKO IRUZKIN OROKORRAK**

1997ko gastu eta dirusarreraren aurrekontuak 421 milioi pezetako hasierako kredituak agertzen ditu; hasierako aurreikuspen horiek asko aldatzen dira gertaturiko gorako aldaketengatik, 322 milioi pezeta egiten dituztenak, hau da hasieran aurreikusitako baino ehuneko 76 gehiago.

Aldaketa horiek diruzaintzako gerakinen bidez -316 milioi pezeta- eta dirusarrera berriak sortuz -6 milioi pezeta- finantziatzen dira eta eragina dute, batez ere, inbertsioen kapituluan.

Aitorturiko betebeharrak 654 milioi pezeta egiten dituzte eta haien betetze-maila ehuneko 88koa da; kapituluaren arabera, azpimarratzekoa da bai langileriaren kapituluan, bai ohiko ondasunen erosketen kapituluan, aitorturiko bolumenak behin betiko aurreikuspenak gainditzen dituela, gastuetarako kredituen muga-printzipioaren aurka.

Hau da haien osaketa ehunekotan emana:

| Gastuak         | Ehunekoak |
|-----------------|-----------|
| Funtzionamendua | 35        |
| Inbertsioa      | 64,9      |
| Finantza-karga  | 0,1       |
| Guztira         | 100       |

Ohar daitekeenez, gastuaren elementu aipagarriena inbertsioei buruzkoa da; funtzionamendu gastuak -langileak, ohiko ondasunak eta transferentziak-, berriz, ehuneko 35 baino ez dira. Finantza kargarik ez dago ia, izan ere hori baita ia zorrik ez izatearen emaitza logikoa.

Aitorturiko betebeharrak dagokienez, 718 milioi pezetakoak dira eta haien betetze maila ehuneko 97koa da. Diruzaintzako gerakina alde batera utzita, eskubideek 402 milioi pezeta egiten dute guztira; hasierako kredituen aldean ehuneko 95eko betetze-maila agertzen dute.

Kapituluei gagozkiela, zeharkako zergak, tasak eta ohiko transferentziak dira aipatzekoak, izan ere ehuneko 100 baino askoz gehiago agertzen baitute. Kapital transferentzietan, aldiz, ehuneko 45eko betetzea baino ez dago.

Ondotik, haien osaketa emanen dugu ehunekotan:

| Dirusarrerak              | Ehunekoak |
|---------------------------|-----------|
| Tributuak                 | 32        |
| Transferentzien bidezkoak | 18        |
| Ondarezkoak               | 7         |
| Gerakina                  | 43        |
| Guztira                   | 100       |

Hau da, 1997ko aurrekontuko iturri finantzario garrantzitsuena metatutako diruzaintza-gerakina da; tributuen bidezko dirusarrerak, berriz, ehuneko 32 egiten dute.

1997ko aurrekontu-betetzearen egoerak 64 milioi pezetako aurrekontu-superabita agertzen du, aitorturiko eskubideen eta betebeharren arteko aldearen ondorioz.

1997ko abenduaren 31n, ordaintzeko zeuden kopuruek -gastuen erresultak- 136 milioi pezeta egiten zituzten. Horietatik 10 milioi aurreko ekitaldietatik heldu dira; kapituluaren arabera, ehuneko 86 inbertsio gastuen erresultei dagozkie.

Kobratzeko dauden kopuruek -dirusarreraren erresultak- 95 milioi pezeta egiten dituzte; haietatik ehuneko 51k aurreko ekitaldietan du jatorria; motaren arabera, ehuneko 78 tributu-zorrik dira eta gainerakoak transferentziengatik zorrak.

**VI.2. FINANTZA-EGOERA 1997KO ABENDUAREN 31N.**

Aranguren Ibarreko Udalak 1997ko abenduaren 31n oso egoera finantzario saneatua dauka.

Ondorio hori aztertzen den edozein ratiotatik atera daiteke eta ondokoetan du jatorria, batez ere:

- Ibarreko udal zerbitzuen kudeaketaren arrazionalizazioa.
- Zorpetze ia nulua.
- Bere baliabideen bidezko finantziazioa, batez ere.
- Funtzionamendu gastuen kontrola.
- Lurzoruaren udal ondare zabala.
- Inbertsio berrien kudeaketa proiektatu eta arrazionalizatzen da.

Beraz, ondoko datuek agerian jartzen dituzte aurreko ondorioak:

| Ratioak/magnitudoak                       | 1997             |
|---|------------------|
| Aurrekontu emaitza doituak                | 32.180.733 pta.  |
| Aurrezki gordina                          | 115.540.546 pta. |
| Aurrezki garbia                           | 114.727.762 pta. |
| Zorpetze maila                            | %0,24            |
| Lorpetzearen muga                         | %34              |
| Gastu publikoa biztanle bakoitzeko        | 216.346 pta.     |
| Dirusarreraren gastua biztanle bakoitzeko | 140.268 pta.     |
| Tributu-dirusarrerak, biztanle bakoitzeko | 75.447 pta.      |
| Dirulaguntzen menpekotasuna               | %18              |
| Langileri gastuak, %                      | %13              |
| Inbertsio gastuak, %                      | %65              |
| Finantza karga, %                         | %0,12            |

1997ko abenduaren 31ko finantza egoerari dagokionez, ondokoak azpimarratu behar ditugu:

| Adierazleak                                    | 1997             |
|--|------------------|
| DIRUZAINZAKO GERAKINA                          | 121.774.047 pta. |
| Finantziazio garbi atxikia duten gastuei lotua | 31.325.520 pta.  |
| Gastu orokorretarako                           | 90.448.527 pta.  |
| EPE LUZEKO ZORRA                               | 1.000.000 pta.   |
| AKTIBO FINANTZARIOAK                           | 37.992.491 pta.  |

Hau da, diruzaintzako saldoak gehi kobratzeko dauden kontusailak ez dira aski epe laburreko zorrei aurre egiteko; aldiz, 1998ko aurrekonturako finantziazio-iturri garrantzitsua izanen den soberakina ematen dute.

Beste aldetik, epe luzeko zorra Nafarroako Gobernuak korriturik kobratu gabe eman duen diru-aurrerakin bat da; horretatik 500.000 pta.ko bi urteko daude ordaindu gabe.

Finantza-aktiboei dagokienez, Zor Publikoaren tituluek osatuta daude.

Azkenik, Nafarroako udaletako batez bestekoaren ratio jakin batzuekin –1996ko datuak– alderatuz gero, berriz ere Aranguren Ibarren aldeko emaitza dago, izan ere batez bestekoaren balio guztiak baino egoera hobea baitu.

(pezetatan)

| Ratioa                        | Aranguren 97 | Nafarroako udalen batez b. (1000-3000 bizt.), 96 (1) | Nafarroako udalen batez bestekoa, 96 (1) |
|-------------------------------|--------------|--|--|
| Ohiko gastua/bizt.            | 75.911       | 59.422   | 70.961                                   |
| Ohiko dirusarrera/bizt.       | 114.055      | 81.498   | 90.953                                   |
| Tributu dirusarrera/bizt. (2) | 75.447       | 49.311   | 50.988                                   |
| Zorpetzearen muga             | %34          | %32  | %25                                      |
| Zorpetze-maila                | %0,24        | %17  | %9                                       |

(1) Datu hauek Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioako Departamentuak emandakoak dira eta Ganbara honek 1996ko Nafarroako Toki Sektore Publikoari buruzko Txostenean bildu zituen.

(2) Hirigintza arloko dirusarrerak –urbanizazio kuotak eta eskudiruan emandako lagapenak– eta industrialdeetakoak biltzen ditu.

### VI.3. KUDEAKETARI BURUZKO GOMENDIOAK.

Jarraian, kudeaketa arlo garrantzitsuenetako bakoitzean, Ganbara honen iritziz, antolamendusistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko Udalak hartu beharko lituzkeen neurriak azaldu ditugu.

Gomendio horien interpretazio zuzena egiteko, aintzat hartu behar da haiek idazteko egin den sintesi prozesua. Hori dela eta, arlo batzuetan, gomendio horiek hitzez hitz eta zabaltasunez hartu behar dira; beste batzuetan, ordea, haien aplikazioa edo indarra arlo horretako zatitako alderdietara edo alderdi jakin batzuetara mugatu behar da.

#### Aurrekontuak eta kontabilitatea.

*Toki Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra ezartzea, hain zuzen ere informazio integrala eskuratzeko modua izateko eta udal jardueraren jarraipen hobea egin ahal izateko.*

- *Gastuetarako kredituak mugatzearen printzipioa errespetatzea, eta, hala behar izanez gero, behar diren aurrekontu-aldaketak onestea.*

- *Behar den zehaztasunaz betetzea kontabilitate-dokumentuei buruzko formazko alderdiak.*

- *Kontabilitate printzipioak zehaztasunez aplikatzea, batez ere ekitaldiaren itxieran.*

- *Ondorio ekonomikoak dituzten administrazio espedienteen edukia antolatu eta sistematizatzea.*

- *Jasotzea udal jarduerari buruz egindako ikuskapen eta kontrol lanak.*

#### Langileria

- *Plantila Organikoan eta langileen zerrendan indarreko legediak aipatzen dituen datu eta informazio guztiak jartzea (izena, zenbakia, maila, egoera, betegabe ote dagoen, gradua, lansari*



osagarriak...). Plantila horrek bat etorri behar du urteko Eskaintza Publikoarekin.

- Plantilan aurreikusitako bi lanpostuetako (idazkaria eta idazkariordea) bat kentzea komeni ote den aztertzea.

- Udaleko langile bakoitzarentzat bere lanbide bizitza eta bizitza pertsonalari buruzko ekintza eta dokumentu garrantzitsuak biltzen dituen espediente administratiboa egitea.

- Nominak, batez ere kanpoan egiten direnak, kontrolatzeko prozedurak diseinatu eta aplikatzea.

- Matrikula libururako ezarritako informazioa betetzea.

- Aztertzea aski ote diren dauden langileak Udalaren behar administratiboak betetzeko.

#### **Inbentarioa-ondarea**

- Ahaleginak egitea ondarearen salmenta garrantzitsuetan –batez ere lurzatiaren salmentetan–, haien balioari buruzko bi txosten lortzen, gutxienez.

- Inbentarioa gaurkotzea, izan ere 1993tik ez baita eguneratu.

- Udalaren inbentarioa etengabe eguneratzeko prozedurak diseinatu eta aplikatzea.

- Ondasun higiezinaren errentamendu guztietan, behar den kontratua egon behar du.

#### **Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketak**

- Udal zerbitzu guztiei aplikatzeko moduko erosketa-sistema bat diseinatzea, haien dezentralizazioari buruzko jarraibide eta prozedurak bilduko dituen: erostea, eskumenak eskuordetzea, ikuskapen zerbitzuaren papera, fakturak berrikusi eta bidaltzea eta ordainketa-aginduak.

- Baldintza plegu guztietan propio zehaztu behar da BEZa prezioaren barrenean dagoela eta zein indize erabiliko den prezioak eguneratzeko.

- Musika zerbitzuak emateko ardura duen pertsonaren egoera erregularizatzea, faktura bakoitzean behar bezala identifikatu dadin eta dagokion atxikipena egin dakion. Halaber, ezarritako fidantza jarri beharko luke.

- Udalkideentzako dietak emateko bilkuretarako joan behar izatea.

#### **Inbertsioak**

- Urteanitzeko gastu diren eta finantziarioa atxikia duten gastuen kontabilitate-jarraipenerako sistema ezartzea.

- Pleguek erabilitako hautapen irizpideen balorazioa eta ponderazioa bildu behar dituzte beti.

- Araudian aurreikusitako kasuetan, egindako kontratuak eta haien aldakuntzak Kontratuen Erregistrora bidaltzea.

- Behin betiko esleipena NAOn argitaratzea –hala behar denean– eta haren berri ematea lizitatzaileri.

- Inbertsioak betetzeko epearen jarraipen estua egitea, are gehiago lehiaketetan erabiltzen diren hautapen irizpideetako bat denean. Halaber, ez-betetze kasuetarako aurreikusitako zehapen neurriak aplikatu behar dira.

- Obra ziurtagiriak pleguetan eta kontratuan ezarritako egutegiaren arabera eman behar dira, betiere obraren exekuzio errealarari jarraituz.

- Behar diren PFEZaren atxikipenak egitea lan-sari teknikoetan eta gainerako prestazioetan.

#### **Dirulaguntzengatiko gastuak**

- Aztertzea eta ordaindu baino lehen alderatzea Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen gastuak eta kitapena.

- Eskualdeko garraioaren zerbitzua kontratu agiri batean gauzatu eta Aurrekontuko 2. kapituluari egozte.

- GKEei dirulaguntzak emateko Exekuzio Oinarrietan ezarritako prozedura betetzea.

#### **Tributuen bidezko dirusarrerak**

- Formalki onestea tributu ezberdinetako erroldak eta jasota uztea udalaren kontuhartzaitzak ekintza horretan parte hartu duela, Exekuzio Oinarriek adierazten duten bezala.

- Sortzapenaren printzipioa estu aplikatzea zergak kontabilizatzerakoan; dirusarreraren aurrekontuko sail ezberdinei egozte jatorriaren arabera; gastuen eta dirusarreraren arteko konpentsazioak saihestea.

- Lurzoruen balio gehikuntzari buruzko zergan:

- a) Kitapenak erregulariki egitea.

- b) Likidazio guztiak kontabilizatzea.

- c) Kobrantzaren kudeaketan prozedura orokorrak erabiltzea.

- Errentan emandako auzo-ondasun guztiei buruzko datu base bat sortzea, dirusarrera horien gaineko kontrola hobetzeko. Ekintza horrek arlo horretako eskumenak mantentzen dituzten kontzejuak ere ukitzen ditu.



- Behin kobratzeko borondatezko epea gainduta, ordainarazpenen printzipalari legez ezarritako errekaruak eta korrituak gehitu behar zaizkio. Dirusarrera horiek dagokien aurrekontu-sailean kontabilizatuko dira.

- Ohiko jardun gisa, erresulten saldoa eta kobratzeko dauden ordainagiriak alderatzea.

- Igerilekuetako dirusarrei buruz, prozedura normalizatuak diseinatzea kiroldegian zuzenean kobratutako dirusarrera horien kitapen eta kontrolari eta kitapen-eppei buruzko arauak ezartzeko.

- Agentzia exekutiboa:

- a) Zorrek Agentziara aldatzeko arauak eta epeak ezartzen dituzten prozedurak diseinatzea, kobrantzaren kudeaketaren jarraipena egitea eta amaierako saldoak aurkeztu eta adostea.

- b) Agentzia tributu guztietarako erabiltzea.

- c) Datuak aztertu eta alderatzea Agentziara igorri baino lehen, hara aldatutako zenbatekoak jasota eta zehaztuta utziz.

- d) Argitzea zein kontzepturengatik aplikatzen zaion Agentziari ehuneko 5eko lansaria baja emandako ordainagiriengatik.

- Baja eta deuseztapen guztiak modu egokian eta dokumentuen bidez justifikatzea.

#### **Dirulaguntzengatik dirusarrerak**

- Exekuzio-oinarrietan ezarritako irizpideak aplikatzea jatorri hori duten dirusarrerak erregistratu eta aurrekontuari egozteko.

#### **Jasotako fidantzak**

- Fidantzei dagokienez

- a) Indarreko legedian aurreikusitako jarduketa guztiei dagozkien fidantzak exigitzea.

- b) Epe luzerako fidantzak aurrekontuari egoztea, Exekuzio Oinarrietan adierazten den bezala.

- c) ABILen erregistratutako fidantzen saldoak berrikusi eta araztea, hala behar izanez gero.

#### **Diruzaintza**

- Eskudiruko kutxa: hasteko, komeni da oso gutxi erabiltzea eta ondoko alderdiak erregulatze-ko arau zehatzak ematea:

- a) Nork erabiliko duen.

- b) Kutxako erregistroa.

- c) Aldizka, zenbaketak egin eta haiek jasotzea.

- d) Kobrantza eta ordainketa guztietarako babes dokumentala.

- Finantza-kontuak: kontrol egokia bermatzeko, ondokoei buruzko arauak eman behar dira:

- a) Sinadurak eguneratu eta kontrolatzea.

- b) Udalaren kontu guztiak kontabilitatean eta Zenbaketa Aktan jasotzea.

- c) Egindako ordainketa eta kobrantza guztiak behar denean kontabilizatu behar dira.

- d) Aldizka saldoen berdinkatze eta berrikuspenak egitea.

- e) Zenbaketa Akta betetzeko ezarritako formazko beharkizun guztiak bete behar dira.

#### **VI.4. GORABEHERAK**

Udalak emandako informazioari jarraituz, ondokoak dira ebazteko dauden errekursoak:

- Gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, enpresa batek aurkeztua industrialde bat birzaitzeko proiektuaren behin betiko kitapenerako udalaren onespeneraren aurka.

Enpresak, guztira, 11 milioi pezeta eskatzen ditu ordaindu gabeko ziurtagiriengatik, Epaia Udalaren aurkakoa bada, birzaitutako lurren jabeek ordaindu beharko dute oso-osorik.

- Finantza-entitate batek Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa, zaharrentzako egoitza bat eraikitzeko lurzati bat esleitu eta saltzeko udalak hartutako erabakiaren aurka. Erabakia atzera bota eta deuseza dela adieraztea eskatzen du.

Txosten hau idazteko uanean, Udalak aitortzen dituen zerga guztiak tributuak ikuskatzeko epean daude.

#### **VII. HIRIGINTZAREN KUDEAKETA**

Atal honetan, alde batetik Ibarraren hirigintza plangintzaren alderdi orokorrak aztertzen dira, eta bestetik agerian jartzen dira hirigintza jarduketan laginketa baten ondorioz ateratako iruzkin eta ondorio batzuk. Hori dela eta, berriz esan beharra dago Ganbara honen jarduna soilik kontrol ekonomiko eta finantzarioaren ikuspuntutik burutzen dela.

##### **VII.1. ARAU SUBSIDIARIOAK ETA HAIEN ALDAKETAK**

Aranguren Ibarraren hirigintza plangintza 1995eko irailean onetsitako Arau Subsidiarioen bitartez (aurrerantzean, AS) gauzatzen da. Aurre-

tik, bai Mutiloabeitik bai Mutiloagoitik beren arau subsidiarioak zituzten.

Arau horiek onesteko testuaren arabera, ondo-koak dira lortu nahi diren hirigintza helburuak, laburbilduta:

a) Lurzoru ez-urbanizagarria babestea, dagoen kontrol eza eta erabilerak aldatzeko presioak saihesteko.

b) Bultzatzea hiriguneei akabera ematea, hiri lurzoru mugatuz eta antolamendu ezaugarri zehatzak diseinatuz.

c) Aurrera egitea Mutiloagoitiko eta Mutiloabeitiko aldean akabera antolatua egiteko, bien arteko hiri-jarraitasuna gauzatzuz.

Aranguren Ibarra osatzen duten entitateetako bakoitzarentzat, ASetan proposaturiko hirigintza antolamendua deskribatzen da; indar berezia jartzen dute lurzoru ez-urbanizagarria babesten. Etxebizitzetako dagokienez, guztira, 452 egitea aurreikusten da; horietatik ehuneko 57 Mutiloagoitiko eta Mutiloabeitiko, batez ere azken horretan. Aurreikusitako dotazio berriei dagokienez, aipatzekoak dira Arangurengo kontzejurako egoitza eta tutoretzapeko apartamentu batzuk eta pilotaleku bat; halaber, garai hartan hasitakoak (plazak, kulturgunea, pilotaleku estalia) bukatzea aurreikusi da.

ASen helburuak gauzatu ahal izateko, inbertsioetarako guztira 760 milioi pezeta biltzen dituen programa ekonomikoa dago; diru horretatik ia gehiena udal fondoen bidez finantziatu da. Programa horrek ez du exekutatzeko egutegi jakinik, ez eta jarraipen txostenen egutegirik ere, baina esan daiteke gaur egun aurreikusitako jarduketak horietatik asko egin direla.

Zati bateko aldaketei dagokienez, ASetan haiek egiteko jarraitu beharreko prozedura adierazten da. Prozedura horretatik azpimarratzekoa da planteaturiko aldaketa erabat justifikatu eta arrazoitu beharra. Guztira, 11 aldaketa proposatu dira, baina horietatik 9 baizik ez dira izapidatu.

Izapidatutako aldaketetatik 7 Udalak berak eskatuta izapidatu dira eta bi partikularrek eskatuta. Haiek onesteari dagokionez, Osoko Bilkurak 5 aho batez onetsi zituen eta 4 gehiengoaren botoen bidez.

Udalaren informazioari jarraituz, ez da alegaziorik aurkeztu aldaketa horiek jendaurrean jartzeko epean; errekurtsorik ere ez da jaso.

Hirigintza betebeharrei dagokienez, ondoko ez-betetzeak antzeman ahal izan dira:

- Lurzoruaren Udal Ondarea sortu eta haren erregistro independentea egitea.

- Lurzoruko inbertsioetarako ohiko diru baliabidetako ehuneko 5en kontsignazio berariazkoa.

- Lurzoruaren Udal Ondarearen eragiketetatik heldu diren dirusarrerak atxikitzea.

Azkenik, esan beharra dago, Udalaren informazioaren arabera, 1991tik 1998ko maiatzera bitartean Aranguren Ibarrean 575 etxebizitza erai-ki direla guztira; horietatik ehuneko 33 babes ofizialekoak izan dira, Udalak berak sustatuak.

## VII.2. HIRIGINTZA JARDUKETAK.

Ondotik hirigintza jarduketak aztertu ondoren egin daitezkeen iruzkin batzuk ematen ditugu:

### VII.2.1. III. Poligonoa.

Mutiloabeitiko ASetan –1982an onetsiak– III. Poligonoko “Morea” lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta zegoen, industri erabilera nagusiarekin. Aranguren Ibarreko egungo arauetan, lur horiek hiri lurzoru odenatu gisa eta industri sailkapenarekin agertzen dira.

1988an, poligono horretako jabeek sustatuta, Plan Partziala izapidatzen hasi zen, poligonoa hirigintzaren arloan antolatzeko xedearekin, Iruñeko eragin esparruan, eta bereziki industri poligono horretan, industri lurzoru erosteko dagoen eskera handia ikusita.

Ordenatu zen lur azalerak 182.469,17 m<sup>2</sup> hartzen zituen; horietatik 30.416,05 m<sup>2</sup> –hau da, ehuneko 17– Mutiloabeitiko Kontzejurenak ziren eta gainerakoak jabe partikularrenak.

Azalera eraikigarri gisa ezartzen da poligonoaren ehuneko 36 –66.005 m<sup>2</sup>–, lurzati industrialen hamahiru etxesailetan banatuta; guztira 106.459,67 m<sup>2</sup> betetzen dituzte. Kontzejuari, batez besteko probetxamenduaren ehuneko hamarraz gainera, hiru lurzati eraikigarri eman zitzaizkion, industri jarduerarako zerbitzu osagarriak jartzeko. Kontentsazioa finkatzen da jarduketak sistema gisa.

Plan Partziala 1988ko irailarean onetsi zuen behin betiko Mutiloabeitiko Kontzejua, eta urtebete geroago Nafarroako Gobernuak onetsi zuen.

Urbanizazio proiektua ere, Kontentsazio Batzarrak sustatuta, onetsi zen: 343 milioi pezeta aurreikusten ziren, zergarik gabe.

Esleitutako industri lurzatiak enkantearen bidez besterentzea erabaki zuen Kontzejua urbanizatu baino lehen, urbanizazio gastuak ez ordaintzeko.

Salmenta bi enkanteren bidez gauzatu zen. Bi enkante horietarako balditzen plegua 1990eko urtarrilean onetsi zen; lizitazio oinarria 5.000 pta./m<sup>2</sup> izan zen.

Lehenbiziko enkantean, M1, M4 eta M5 lurzatiak atera ziren; hona emaitzak:

| Lurzatiak | Azalera, m <sup>2</sup> | Pta./m <sup>2</sup> | Zenbatekoa pta. |
|-----------|-------------------------|---------------------|-----------------|
| M1        | 8.258,06                | 10.800              | 89.186.400      |
| M4        | 3.582,84                | 7.600               | 27.229.584      |
| M5        | 3.949,72                | 5.400               | 21.328.488      |
| Guztira   | 15.790,62               | 8.723               | 137.744.472     |

Bigarren enkantean, M2, M3 eta M6 lurzatiak besterendu ziren; hona emaitzak:

| Lurzatiak | Azalera, m <sup>2</sup> | Pta./m <sup>2</sup> | Zenbatekoa pta. |
|-----------|-------------------------|---------------------|-----------------|
| M2        | 4.583,87                | 11.000              | 50.422.570      |
| M3        | 4.583,87                | 7.600               | 34.837.412      |
| M6        | 1.520,97                | 8.400               | 12.776.148      |
| Guztira   | 10.688,71               | 9.172               | 98.036.130      |

M3 lurzatiaren esleipen-hartzaileek ez zituzten pleguan bilduriko behin betiko esleipenari buruzko baldintzak bete; hori dela eta, Udalak atzera bota zuen esleipen hori. Geroago, besterentze zuzena egin zuen, Nafarroako Gobernuaren baimena lortu ondoren.

Udalaren eskaintzan, lizitatzeko gutxieneko prezioa 5.600 pta./m<sup>2</sup> gehi ordura arte ordaindutako urbanizazio gastuak agertzen ziren. Azkenik, 29 milioi –6.025 pta./m<sup>2</sup>– gehi ordura arte ordaindutako lurzatiaren urbanizazio gastuak jasotzen zituen eskaintzari esleitu zitzaion behin betiko, alegia, aurkeztutako eskaintza bakarrari.

Dotazioetarako lurzatietakoa bat ere –R lurzati, 3.753,50 m<sup>2</sup>koa– enkantean jarri eta behin betiko esleitu zitzaion lizitatzaille bakarrari 18 milioi pezetatan.

Laburbilduz, ondokoak dira gaur arte Mutiloa-beitiko Kontzejuak eta gero Aranguren Ibarreko Udalak industrialde horretako lurzatiak salduz lortutako diru-zenbatekoak:

| Lurzatia | Azalera, m <sup>2</sup> | Pta./m <sup>2</sup> | Zenbatekoa pta. | Sistema            |
|----------|-------------------------|---------------------|-----------------|--------------------|
| M1       | 8.258,06                | 10.800              | 89.186.400      | Enkantea           |
| M2       | 4.583,87                | 11.000              | 50.422.570      | Enkantea           |
| M3       | 4.766,86                | 6.025               | 28.720.331      | Besterentze zuzena |

|         |           |       |             |          |
|---------|-----------|-------|-------------|----------|
| M4      | 3.582,84  | 7.600 | 27.229.584  | Enkantea |
| M5      | 4.088,31  | 5.400 | 21.328.488  | Enkantea |
| M6      | 1.520,97  | 8.400 | 12.776.148  | Enkantea |
| R       | 3.753,50  | 4.796 | 18.000.000  | Enkantea |
| Guztira | 30.554,41 | 8.106 | 247.663.521 |          |

Gaur egun, Udalak oraindik dotazioetarako bi lurzati ditu industrialde horretan, guztira 3.589 m<sup>2</sup>ko azalera egiten dutenak.

Ondorioz, ez da indarreko araudiaren ez-betezterik antzeman aztertutako prozeduran; ekonomiaren ikuspuntutik, eragiketa onuragarria izan da Udalarentzat, industrialde baten hirigintza-antolamendua bideratzeaz gainera.

## VII.2.2. Mutiloa plaza

Gaurko Mutiloa plaza kokatuta dagoen lurra, 1982ko Mutiloa-beitiko Kontzejuaren ASen arabera, hiri lurzoruko sailkapena zuen eta E-5 jarduteko unitatea zen, 4.398 m<sup>2</sup>koa. Unitate honetarako, ASei buruzko txostenak ondokoa ezarri zuten oinarritzko xede: "Plaza bat diseinatzea herritarrentzako erdigune gisa eta hori beteko dela bermatuko duten baldintzak ezartzea".

Unitatea osatzen zuten lur guztiak jabe partikularrenak ziren eta sustapena ez zen exekutatu bukatu. Plaza egiteko izapideak hasi ziren, ekimen publiko gisa, Aranguren Ibarreko Udalaren beraren bitartez.

Jarduketa honetan ondoko aldi edo etapa aurkitu ditugu:

- Lurra erostea. Udalak lurra, bost jabe partikularrenak, erosi zituen.

Erosketa eskudirutan eta Udalaren beste lur batzuekiko trukaketen bidez egin zen. Udalak 4.414.36 m<sup>2</sup> erosi zituen 81 milioitan: diru horretatik 58 milioi eskudirutan ordaindu ziren eta 23 milioi trukaketen bidez.

Udalak ordaindutako batez besteko balioa –18.624 pta./m<sup>2</sup>– hirigintzako aholkulariak egindako balorazioaren inguruan dago: 15.000 pta./m<sup>2</sup> gehi lehendik zeuden eraikuntza eta erabilerengatik kalteordainak.

Aurreko eragiketak, burutzen diren ekitaldiak eta ohiko aurrekontuetan kontabilizatu ziren; ez zen jarduketaren jarraipen orokorrik egin.

- Erositako lurretatik, Udalak 1.960 m<sup>2</sup> bereizi zituen –22 milioitan baloratuak, babes ofizialeko etxebizitzaren prezioaren arabera– erabilerengatik egiteko eta trukaketa bat egin zuen Mutiloa Etxebizitzaren Elkartearekin,

bulegoetako 341,50 m<sup>2</sup>ren truke eta plazaren eta ondoko kaleen urbanizazioa egitearen truke.

Beste aldetik, jabeen elkarteak bere gain hartu zuen behar ziren hirigintza jarduketak egitea: unitatearen xehetasunen azterketa, unitatea urbanizatzeko proiektua, urbanizazioa burutzea eta etxebizitzak eraikitzea.

Aurretik, Udalak, bere aurrekontuen kargura -500.000 pta. inguruko kostua izan zuen- etxebizitzak eraikitzeari buruzko azterketa geoteknikoa egin zuen, leku horietan azpizorian antzemanda-ko arazoak zirela eta.

Ondokoak dira obrak burutzeko aurrekontuak, proiektuen araberrakoak:

|              |                 |
|--------------|-----------------|
| Urbanizazioa | 58.309.623 pta  |
| Eraikuntza   | 335.443.365 pta |
| Guztira      | 393.752.998 pta |

Urbanizazioaren kostuari eraikina harriz janzteko lanak erantsi behar zaizkio, bistako adreiluz egitea baino 29 milioi pezeta gehiago. Beraz, plazaren urbanizazioaren kostua, BEZa kontatu gabe, 87 milioi pezetakoa izan zen, hau da, 100 milioi pezeta ingurukoa BEZa barne.

- Gaur egun, bai plaza, bai bera osatzen duen eraikina bukatuta daude.

Ez da inon ageri Udalak plazako urbanizazio obrak hartu izana.

- Etxebizitzetarako dagokienez, proiektuak ondokoak eraikitzea biltzen du:

|                      |   |
|----------------------|---|
| Sotoa:               | - 36 trasteleku<br>- 64 aparkaleku  |
| Beheko solairua:     | - merkataritza lokalak. 681,35 m <sup>2</sup><br>eraiki                     |
| Gainerako solairuak: | - 2 bulego. 341,51 m <sup>2</sup><br>eraiki<br>- 12 motatako 33 etxebizitza |

33 etxebizitzetatik -aparkalekua eta trasteleku barne saltzen dira- 6 babes ofizialeko araubide berezikoak dira eta gainerako 27ak araubide orokorrekoak. Gainerako trasteleku eta aparkalekuak modu independentean saltzen dira.

Etxebizitzak esleitzeko irizpide gisa, ohartu daiteke izaera orokorreko irizpideez gainera Aranguren Ibarrean erroldatuta egotea eskatzen dela; gero, eskainitako etxebizitza guztiak bete ez zirenez, bertan erroldatu gabeko pertsoneri ere aukera eman zitzaien eskaerak egiteko.

**Ondorioz**, espedientean ageri den informazioaren arabera, jarduketa hori indarreko legediaren arabera burutu zen; hala eta guztiz ere, gure iritziz trukaketak egiteko gutxienez bi adituren balorazio edo peritazio txosten eduki behar zituen Udalak, eta egindako obrak hartu egin behar zituen.

### VII.2.3. Mutilnova Plan Partziala.

#### AURREKARIAK ETA IZAPIDAKETA

1990ean, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Udalez Gaindiko Plan Sektorial (UGPS) baten izapidaketa hasi zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoak Iruñean duen Unibertsitate Campusa zabaltzeko. Plan horretan Iruñeko, Mutiloagoitiko eta Mutiloabeitiko lurak sartu ziren.

Behin-behineko onespeneraren erabakian, Mutiloabeitiko bost lurzatatiko lurak sartu ziren "hasiera batean proposaturiko Plan Sektorialarekiko koherentzia mantentzeko"; antolamendu hori egotzazko erabilerarako eta erabilera pribaturako izanen zela adierazi zen.

Nafarroako Gobernuaren 1990eko uztaileko erabakiz, Plan hori behin betiko onetsi zen eta erabilera eta interes publikokotzat jotzen da. "Aurreikusitako jarduera, zoruaren jabeagan eman diren inguruabar bereziak ikusirik, Nafarroako Gobernuak Mutiloabeitiko katastroko 391, 517, 385 eta 393 lurzatiak desjabetuz burutuko da. Gero, dagokion Plan Partzialak ezartzen duen antolamenduaren ondorioz sortzen diren lurzatiak banatuko dira: Plan horretako iparraldea Nafarroako Gobernuarentzat izanen da eta ez da unitatearen batez besteko probetxamenduaren ehuneko 10aren lagapena aplikatuko".

Ondokoak dira UGPSan behin betiko sartu ziren lurak:

|              |                          |
|--------------|--------------------------|
| Iruña        | 1.044.602 m <sup>2</sup> |
| Mutiloagoiti | 141.555 m <sup>2</sup>   |
| Mutiloabeiti | 167.081 m <sup>2</sup>   |
| Guztira      | 1.353.238 m <sup>2</sup> |

Nafarroako Unibertsitate Publikoa garai hartan 238.186 m<sup>2</sup>ko azalera eraikitzen ari zen eta beharrezko instalazio osagarrietarako, epe labur eta ertainera, UGPS horren bitartez, 1.353.238 m<sup>2</sup>, hau da hasierako lur azalera baino ehuneko 568 gehiago gorde zen.

UGPSaren behin-behineko onespeneran, C puntuan, ondokoak ezarri ziren: "Iruñeko HAPOari eta Mutiloagoitiko eta Mutiloabeitiko ASei buruzko Plangintzaren hiru aldaketa egin beharko dira,

oraingo UGPSra egokitzeko, 12/86 Foru Legearen 23.1 artikuluan ezarritakoa betez.

Plan horiek ukitutako alderdiak aldatzeari ekitako, alegia oraingo UGPSra egokitzeko, gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da, hura behin betiko onetsi zenetik hasita, eta Plan Sektorialaren sustatzailearen kargura izanen da.”

Ez dago inon jasota ez Mutiloabeitiko Kontzejuak, ez Nafarroako Gobernuak subrogatuta, ASak ondorio horietarako aldatzeko izapideak egin dituenik, une honetan indarrean dagoen Lurraldearen Antolamenduari buruzko 12/1986 Legearen 23. artikulua ezartzen duenez.

Aldi berean, Mutiloabeitin plan partzial bat izapidatzen ari zen etxebizitzak Kontzejuaren auzolurretan eraikitzeko. Lur horiek dira hain zuzen ere UGPSn, ondoko lur partikular batzuekin batera, bildu eta U-6 unitatea osatzen dutenak. Unitate hori egoitzetarako eta erabilera pribaturako izanen da. Horiek guztiak hartuta izapidatzen ari da behin betiko Mutilnova Plan Partziala.

Laburbilduz, ondokoak dira UGPSra bildutako lurrak:

| Lurzatia | Azalera                | Jabegoa      |
|----------|------------------------|--------------|
| 2/391    | 5.794 m <sup>2</sup>   | Partikularra |
| 2/507    | 15.423 m <sup>2</sup>  | Partikularra |
| 2/384    | 68.353 m <sup>2</sup>  | Mutiloabeiti |
| 2/385    | 22.236 m <sup>2</sup>  | Partikularra |
| 2/393    | 23.071 m <sup>2</sup>  | Partikularra |
| Guztira  | 134.877 m <sup>2</sup> |              |

Mutilnova Plan Partzialari buruzko oroit-idazkitik ondokoak azpimarratu behar ditugu:

- Ezarritako jarraibide nagusia izan zen egoitzazko eremu bat garatzea auzo-lurretan Kontzejuko auzokideentzako etxebizitza sozialak sustatzeko. Eremu hori, NUPen UGPSa onestearen ondorioz, jabe partikularren inguruko lurrekin zabaldu zen, hain zuzen ere Unibertsitate berria ezartzeak ekarritako etxebizitzaren beharrari erantzuteko.

- UGPSaren bitartez, lurzoru horri lurzoru urbanizagarriaren sailkapena ematen zaio, eta haren azalera 60.131 m<sup>2</sup> handiagoa da jabe partikularren lurrak hartuta; horrela, kontzejuaren hasierako aurreikuspenak ia bikoiztu egiten dira.

- Jabe partikularren lurrak Nafarroako Gobernuak desjabetzen ditu. Udalaren lurrak, berriz, besterendu egiten dira, Nafarroako Gobernuak

baimena eman ondoren, eta merkataritza lokalekin trukutzen dira.

- 233 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da; horietatik 15 baino ez dira etxebizitza libreak izanen; gainerakoak babes ofizialekoak izanen dira.

- Plan Partzialak Konpentsazio Sistema ezarri zuen jarduteko sistema gisa. Gero sistema horren ordez Lankidetzaren Sistema ezarri zen; horren bidez Udalak esleipena eta urbanizatzeko obren ordainketa bere kargu hartu eta gero jabeei jasanarazten die.

#### UDALAREN LURRAK LOKALEKIN TRUKATZEA.

Lurren besterentzea, Nafarroako Gobernuak baimena eman eta gero, Mutiloa etxebizitzaren elkartearen alde egin zen, merkataritza lokalekin trukatzeko.

Lurzatiaren balorazioa –69 milioi pezeta– dirudenez elkarrekin berak emandako txosten tekniko bati jarraituz egin zen. Etxebizitzari buruzko balorazioaren oinarrian babes ofizialeko etxebizitzari aplikatzen zaiena dago; urbanizaziorako, Plan Partzialean erabilitako zenbateko bera erabiltzen da.

Udalak aurreikusia du lokal horiek saltzea enkantearen bidez, partikularrek eskatu ahala. Gaur egun arte 1995ean bakarria saldu da 4 milioitan.

#### URBANIZAZIOA.

Lehiaketaren zehaztapenei jarraituz, Plan Partzialeko lanen urbanizazio proiektua 387 milioitan –BEZa barne– zenbatetsi da; lanak 24 hilabetetan burutzea aurreikusi da.

Sei eskaintza aurkeztu ziren; proiektua prestatu zuten arkitektoek haien proposamenak baloratu zituzten eskaintza, eskarmentu, eragiteko gaitasun eta aurrekontu irizpideei jarraituz.

UTE bati esleitu zitzaizkion urbanizazio lanak, ondoko irregulartasunekin:

- Esleipena 524 milioi pezeta da, hau da, lizitazio zenbatekoa baino ehuneko 35 garestiagoa.

- Kontratuan lanak burutzeko aurreikusi den epea 25,5 hilabete da, hau da, lehiaketaren aurreikuspenak baino 1,5 hilabete gehiago eta ulertezina suertatzen dena; 15 hilabete gehiago dira esleipen-hartzaileak berak aurkeztutako eskaintzako epean baino. Gai hori, gainera, larriagotu egiten da kontuan hartzen bada esleipenerako irizpideetan baloratuena obrak burutzeko epea izan zela.



Lanak burutzeari dagokionez, ondokoak azpimarratu nahi ditugu:

- Amaierako kostua 616 milioi pezeta izan zen, hau da, esleipena baino ehuneko 18 gehiago. Gehikuntza horretatik 78 milioi pezeta aurreikusitako kopuruen eta aurreproiektuan aurreikusi ez diren eta lurrian antzeman diren arazoaren arteko aldeari dagozkie. Ez da inon jaso Udalak aldaketa horiek alde aurretik onetsi izana, nahiz eta espedientearen obrako zuzendariaren txosten tekniko bat ageri den alde hori a posteriori justifikatzen duena.

- Behin behineko obren harrera 1995eko maiatzekoa da. Aurreikusitako epeei jarraituz, lanak 1991ko azaroan hasi ziren; teorikoki, 25,5 hilabeteak kontatuz lanek 1994ko abenduaren bukaeran bukatuta behar zuten. Ez da inon jaso atzerapearen arrazoirik ez eta handitzearen onespenerik ere; aurreikusitako zehapenen aplikaziorik ere ez da ageri.

Aurreko urbanizazio lanetan, Zadar ibaiaren gainean zubi bat egitea aurreikusten zen. Proiektuaren erredakzioa zuzenean esleitu zen; zubia eraikitzeko lanek 21 milioi pezetako kostua –BEZik gabe– izan zuten.

Zubia eraikitzeko lanak UTE berari esleitu zitzaizkion 23 milioi pezetatan, hau da proiektuko prezioa baino ehuneko 6 garestiago; beste aldetik, zenbateko hori bat dator UTEk aurkeztutako eskaintzarekin.

Zubiaren eraikuntzak, azkenean, 26 milioi pezetako kostua izan zuen, hau da, kontratuko zenbatekoa baino ehuneko 12 gehiago. Ez da inon jaso desbideraketa eta aldaketa horien ez justifikaziorik ez onespenerik.

Laburbilduz, urbanizazioaren guztizko kostua, gastu guztiak barne, 680 milioi pezeta izan zen. Zenbateko hori lurzatietako jabeen jasanarazi zien Udalak, bakoitzaren partehartze koefizienteari jarraituz.

Koefiziente horien arabera, Nafarroako Gobernari 33 milioi pezetako zenbatekoa ordaintzea zegokion, behin-behineko; diru-kopuru hori 1992ko ekainean onetsi zen. Desbideraketen ondorioz, diru-kopuru hori 5 milioi gehitu zitzaizkion, Udalak kitatu eta onartu zituenak baina Gobernuak ordaindu gabe daudenak; kopuru hori dirusarreraren erresultetan agertzen zen 1997ra arte, baina urte horretan deuseztu zen. Gure iritziz, Udalak alde horiek eskatu beharko litzeki Nafarroako Gobernari, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 38. artikulua adierazten duen bezala.

Beste aldetik, Udalak Toki Entitateen Partehartze Fondotik 29 milioi pezeta jaso zituen “Aranguren Udaleko lurzorua jartzeko”. Diru horretan, Mutilnova Urbanizaziora sartzeko zubia ere sartzan zen. Aurreko artikulua arabera, zenbateko hori –dirulaguntza– ez zen kendu jabeen kasu honetan Nafarroako Gobernuari jasanarazitako urbanizazio kuoten kostutik. Beste aldetik, azpimarratu behar dugu Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen ari dela ekimen pribatuaren bidez burutzen ari diren azpiegitura-lan guztiak.

Ez da jarduketatik heldu diren gastuen eta dirusarreraren urteantzeko kontabilitate jarraipenik.

#### PLAN PARTZIALEKO AURREIKUSPENEN JARRAIPENA.

Txostenean ezarri zen luraren tamaina txikia ikusita Plana fase bakarren burutuko zela.

Gaur egun, hala ere, hiru lurzati daude eraiki gabe eta beste batean eraikitzen ari dira: horietako bi Nafarroako Gobernuarenak dira eta beste bi NUPeko langile batzuek osaturiko elkarte batena –haiek ere Gobernuak lagatutakoak–.

Laburbilduz, hasiera batean Udalak izapidatutako Plan Partziala –bere lurretan soilik– erabat burutu dute eta gainera babes ofizialeko etxeekin; Plan Partzial horren zabalpenean, UGPSn indarrezko desjabetzapearen bitartez gauzatu NUPen helburu handinahiak betetzeko, jarduketa garrantzitsu batzuk egiteko daude.

Etxebizitzen kopuruari dagokionez, egoera ondokoa da:

|                | BBE  | Libreak | Guztira |
|----------------|------|---------|---------|
| Aurreikuspenak | 198* | 35      | 233     |
| Burututakoak   | 194* | 112     | 306     |

\* Nafarroako Gobernuak eraikiko omen dituen 48 etxebizitza ere hor sartzan dira.

Ikus daitekeenez, ehuneko 220 etxebizitza libre gehiago egin dira. Igoera hori konpentsatzeko azalera txikiagoa dute.

Azkenik, adierazi beharra dago etxebizitza libreak eraiki diren lurren aurreko jabeek Nafarroako Gobernuaren aurkako errekurtsioa jarri dutela, izan ere desjabetzapearen zenbatekoa finkatzeko babes ofizialeko etxebizitzak, eta ez etxebizitza libreak, eraikitzeko zela hartu baitzen oinarri.

**Ondorioz**, ikus daiteke Plan Partzialaren espedienteak neurri handi batean hirigintza araudia errespetatzen duela –ASak egokitzeari eta aurreikuspenak betetzeari dagokienez salbu–, baina ez-betetzeak gertatu direla urbanizazio lanak kontratatzeke garaian.



#### VII.2.4. Mutiloagoitiko UO17 Unitatearen burutzea.

Mutiloagoitiko UO17 Unitatea hiri lurzoru antolatua da eta kirol eremuko sailkapena du ASetan.

Aurrekari gisa, aipatu beharra dago Mutiloagoitiko lehengo ASek –1987an onetsitakoak– lurzoru hori egoitzetarako hiri lurzoru gisa definitzen zutela, 161.430 m<sup>2</sup>ko azalera.

Deuseztutako kontzejuak azalera horretarako Plan Partziala enkargatu eta izapidatu zuen; plan hori 87-12-1ean onetsi zen eta bertan lankidetzako sistema bat ezarri zen urbanizazio lanetarako.

Birzatzeko proiektua 1988koa da eta 1989ko martxoan onetsi zen behin betiko. Esleitutako lurzatiak, ehuneko 10aren lagapena barne, behar bezala erregistratu ziren eta guztira 40.282 m<sup>2</sup> hartu zituzten, bide-sistema eta oinezkoen sistema barne.

1993an urbanizazio proiektu bat enkargatu zen udal lurretan kirolerako eta haurrentzako parke bat eraikitzeko, hain zuzen ere aipaturiko birzatzitze horretan esleituriko hiri lurzatieta; guztira 5.912 m<sup>2</sup> hartzen zituen.

Obraren kostua 1993 eta 1994ko ekitaldietako ohiko aurrekontuetan biltzen da, batez ere, nahiz eta gero beste lan batzuk burutu ziren; zehazki haur parkea ixtea, 1995, 1996 eta 1997ko aurrekontuetan biltzen den bezala. Alderdi horrekin loturiko gastuak dira, nahiz eta independenteak diren hasierako proiektutik. Laburbilduz, ondokoak izan dira egotzitako gastuak:

|                       | (pezetatan) |
|-----------------------|-------------|
| Kirol eremuaren obrak | 39.898.002  |
| Haur parkea ixtea     | 7.760.474   |
| Guztira               | 47.658.476  |

Laburbilduz, egindako azterketatik ez da iruzkin berezirik egin beharrik; lege ezarritako prozedurari jarraitu zaio.

#### VII.2.5. Mutiloagoitiko UO19 Unitatearen burutzea.

Unitate horrek ondoko sailkapena du: hiri lurzoru, dotazio eta zerbitzuetarako. Gehien bat jabego publikokoak dira. Famili bakarreko etxebizitzaren eremu bat, bulegoetarako eremu bat eta zaharrentzako egoitza bat eraikitzeko dotazio-eremu bat aurreikusita zeuden erabilera bereizi gisa.

Gaur egun, famili bakarreko etxebizitzak –10 etxebizitza– eta bulegoetarako eremu bat –Club de Marketing de Navarra– eraikitzen ari dira.

Udalaren lurzatiak 20.794,89 m<sup>2</sup> zituen. Lurzati horretatik 15.588 m<sup>2</sup> bereizi ziren gero saltzeko, betiere zaharrentzako egoitza bat eraikitzeko.

Hura besterentzeko espedientea Nafarroako Aurrezki Kutxak eta Iruñeko Kutxak batera lur hori hartu eta egoitza bat eraikitzeko erakutsi zuten interesarengatik hasi zen.

Udalak kanpoko txostenak eskatu zituzten, bat juridikoa lurzatiaren zuzeneko salmenta abalatzeko eta bestea arkitekto baten balorazioarekin, hondarreko metodoaren bidez lurzoruaren balioa 32 milioitan finkatu zuena.

Udalaren Osoko Bilkurak 1997ko urrian gehiengo osoz erabaki zuen lurzatiaren besterentzea, Laguntzako Dotazio Geriatriko bat jartzea interes orokorreko deklaraztea eta baimena ematea zuzenean, eskaintzarik gabe, Sociedad Mercantil Asistencial Mutilva, SAr emateko, izan ere aurreko finantza-enpresek eta Proginosa enpresak sustatutako sozietatea, 32 milioi pezetatan –BEZik gabe–.

Salerosketaren eskritura 1997ko azaroan sinatu zen.

Ondorioz, ondokoak azpimarratu behar ditugu eragiketa honi buruz:

- Ez da inon jaso besterentzea arautzen duen baldintzen plegua.
- Ez da justifikatu bereizitako metro karratuen kopurua.
- Udalak ohi duen bezala, lurzatiaren balioa aditu bakar batek egindako txosten teknikoak finkatzen du.


• Lurzatiaren zuzeneko besterentzea ulertu edo justifikatu liteke, baina ezin da ulertu eskaintzarik ez eskatzea, are gehiago Nafarroako Rural Kutxaren eskaintza jaso ondoren. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago eskaintza hori esleipena egiteko Osoko Bilkura egin zen egun berean aurkeztu zutela. Jarduketa horren ondorioz, Rural Kutxak deuseztapen errekurtsioa aurkeztu du Nafarroako Administrazio Auzitegian.

Txosten hau Ignacio Cabeza del Salvador auditoreak proposatuta eman da, hura izan baita lana burutzeko ardura zuena, behin indarreko legediak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

## ERANSKINA: UDALAREN ORGANIGRAMA 1997ko ABENDUAREN 31n.



- (1) 97-12-31n funtzionarioetako bi praktika aldietan ari dira Udaltzaingoaren Komisarian.
- (2) Urtean zehar, obra batzuetara eraman dituzte, INEMen laguntzarekin; beraz, haien kostuaren parte bat diruz lagunduta dago. 97-12-31n jardunean jarraitzen dute Udaleko aldi baterako langile gisa.
- (3) Lan harremana 97-12-31n bukatzen da, INEMen laguntzarekin kontratatu zituzten obrak bukatzen direnean.

| Udaleko langileak 97-XII-31n |           |
|------------------------------|-----------|
| Funtzionarioak               | 4         |
| Langile finkoak              | 6         |
| Aldi baterako lang.          | 22        |
| <b>Guztira</b>               | <b>32</b> |



## **“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak oxigenoterapia eta bestelako terapien zerbitzurako kontratua desegitea eta berriro esleitzea”ri buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak oxigenoterapia eta bestelako terapien zerbitzurako kontratua desegitea eta berriro esleitzea”ri buruzko fiskalizazio txostena, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak oxigenoterapia eta bestelako terapien zerbitzurako kontratua desegitea eta berriro esleitzea”ri buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (18. or.).
  - II. Aurrekariaren deskribapena eta gaur egungo egoera (18. or.).
  - III. Helburua, norainokoa eta mugak (24. or.).
  - IV. Ondorioak (24. or.).
- Gehigarria.** Beranduagoko gertakariak (28. or.).

#### **Eranskinak:**

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aurkezturiko alegazioak (28. or.).
2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganbarak emandako erantzuna (32. or.).

#### **I. SARRERA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldearen bultzadaren ondorioz, 1998ko otsailaren 17an Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak Kontuen Ganbarari fiskalizazio txosten bat eskatzea erabaki zuen, “CEIMSA Electromedicina, S.L.”rekin oxigenoterapia eta bestelako arnas-terapiak egiteko sinaturiko kontratuari buruzkoa.

Beranduago –otsailaren 26an–, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak idazki bat bidali zuen Ganbara honetara, jakinarazteko Parlamen-

tari Talde hartako Bozeramaileak, arretagaia zehaztearren, kontratazio-espeditenteko honako puntu hauei buruz jardutea eskatzen zuela:

1.- CEIMSArekin sinaturiko kontratua desegitea.

2.- Carbuos Metálicos esleitzea edo berri-tzea.

3.- Aipaturiko desegite eta esleipen edo berri-tzean irregulartasunak dauden ala ez.

Eskakizun horren ondorioz, Kontuen Ganbarak 1998rako jarduketa-planean sartu du lan hau egitea.

Informazio gisa, gogorarazten dugu 1998ko otsailean Ganbara honek txosten bat egin zuela “osasun arloko ikuskapen, prestazio eta itunen” programari buruz, eta bertan aztertzen dela, besteak beste, aurreko kontratuaren esleipen-fasea.

#### **II. AURREKARIEN DESKRIBAPENA ETA GAUR EGUNGO EGOERA**

Jarraian, Parlamentuaren eskakizuna argitzearen, ikuskaturiko prozesuan funtsezko eragina izan duten gertakariaren deskribapena eskaintzen da. Hobeki ulertzeko, idazati hau hainbat denborarepetan antolatuta dago.

Halaber, prozesuetan parte hartzen duten enpresa batzuen kapitalaren jabetzari buruzko zenbait argibidek idazatia osatu egiten dute.

##### 1. EPEA: 1993-1996

- Etxez etxeko oxigenoterapia, aerosolterapia eta bentiloterapia Gizarte Segurantzako onuradunei eskaintzen zitzaien INSALUD eta enpresa baten –Carbuos Metálicos, S.A. (aurrerantzean, Carbuos)– artean 1987ko uztailean sinaturiko itun baten bitartez. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua, osasun-arloko transferentziak zirela-eta, 1990ean aurreko itunean subrogatu zen.

- 1993an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak lehiaketa publiko baterako deialdia egin zuen, zerbitzua 1994ko ekitalditik aurrera emateko. Bertara Carbuos, Oxigasa S.A. eta Oximeca S.A. enpresak aurkeztu ziren. Nahiz eta eskaintzarik merkeena azken enpresa horrek egin, enpresa-sailkapenik ez izatearen ondorioz –lehiaketa honetarako betebeharrak hori eskatzen

zen— ez zen onartua izan, eta zerbitzu-ematea Oxigasa enpresari esleitu zitzaion.

1994ko otsailean sinatu zen ekitaldi horretarako balioko zuen kontratua, bi alderdien adostasunez urte naturaletan luzatu zitekeena, gehieneko iraupena 1997ko abendura bitartekoa izanik. Hala ere, 1995eko azaroan enpresak kontratua salatu egin zuen, 1996ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Lehiaketa berria ebatzi bitartean, honako luzapen eta salbuespeneko kontratazio hauek egin dira Oxigasa enpresarekin:

a) Luzapena, 1996ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean.

b) Salbuespeneko kontratazioa, urte horretako apirilaren 1etik ekainaren 30era bitartean.

- Lehiaketa berria 1996ko urtarrilean hasi zen izapidatzen, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bidez, eta ekitaldi horrexeko ekainaren 19an amaitu zen —hau da, 5 hilabete beranduago—, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeatzailearen Erabakiarekin. Erabaki horrek lehiaketa esleipenik egin gabe utzi zuen, aurkezturiko eskaintzek gehieneko lizitazio-tarifak gainditzeko zituztelako. Aurkeztu ziren enpresak Carbuos eta Oxigasa izan ziren, eta biek proposamen ekonomiko berbera egin zuten.

Horren ondorioz, salbuespeneko beste kontratazio bat egin zen, 1996ko uztaila-abendua eperako. Baina, kasu honetan, Carbuos Metálicos enpresarekin; kontratua 1996ko urrian sinatu zen, lehiaketarako onetsitako klausula administratibo eta teknikoekin, eta, gainera, aparte eta tarifako prezioekin aurretik fakturatzen ziren zerbitzu berriak gehitu ziren.

Enpresa-aldaketa ez dago espedientean justifikatua eta ez zuen garrantzizko eraginik izan zerbitzuan. Aparatu-ordezketaren konstantziarik ez dago, eta, enpresak aurkezturiko datuen arabera, langile eta zerbitzurako erabilitako ibilgailu ia guztiak eta aurreko enpresarenak berberak dira. Ildo honetatik, 1994ko urrian, Prestazio Zerbitzuak jadanik jakinarazi zuen hauxe: "OXIGASA, S.A.ko zerbitzua ematen duen gizataldea aurreko urteetan ematen ari zen berbera da. Gainera, Carbuos Metálicos, S.A.k hornitzen du oxigenoz enpresa hori. Beraz, gizataldea eta enpresa hornitzailea berberak izanik eta erabilitako baliabide teknikoak antzekoak..."

Laburbilduz, 1996an zehar honako kontratu hauek izan dira:

|                  |                         |                   |
|------------------|-------------------------|-------------------|
| Urtarrila-Martxo | Kontratu-luzapena       | Oxigasa           |
| Apirila-Ekaina   | Salbuespeneko kontratua | Oxigasa           |
| Uztaila-Abendua  | Salbuespeneko kontratua | Carbuos Metálicos |

## 2. EPEA: 1997

- 1997ko otsailean, lehiaketa berriaren izapidatzea artean bukatu ez zenez gero, beharrezkoa izan zen zerbitzuaren salbuespeneko kontratazioa egitea, eta berriro ere Carbuos Metálicos egin zitzaion esleipena. Kontratazio horren indarraldia 1997ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartekoa da, edo, hala bada, egoki den lehiaketa publikoaren ondoriozko kontratuak indarra hartu artekoa.

- Lehiaketa berria esleitzeari buruzko erabakia uztailaren hasierakoa denez gero, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak beharrezkotzat jo zuen salbuespeneko aurreko kontratuaren indarraldia 1997ko uztailera eta abuztura luzatzea. Horrela, urte horretako ekainaren 30ean aurreko luzapena sinatu zen, berriro ere Carbuos Metálicos enpresarekin.

### CEIMSARI esleitzea

- \* Zerbitzua esleitzeko lehiaketa 1997ko martxoan hasi zen (hori da Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren data), eta 1997ko uztailaren hiruan amaitu zen —3 hilabete—, esleipen-erabakiarekin.

Lehiaketara hiru enpresa aurkeztu ziren: Carbuos, Oxigasa eta Ceimsa Electromedicina, S.L. (aurrerantzean, Ceimsa), eta azken hori gertatu zen esleipen-hartzaile, antzeko maila teknikoekin —espedientean dauden txostenen arabera— proposamen ekonomikorik onuragarriena aurkeztu zuelako —191 milioi, beste bi lizitatzailleek 214 eskaintzen zituzten bitartean, hau da, 23 milioiko aurrezpena—. Zehazki, CEIMSARI 64,01 puntu esleitu zitzaizkion, eta Carbuos eta Oxigasaren eskaintzei, ordea, 30 puntu. Prestazioa 1997ko uztailaren 3an esleitu zen.

Ondoren izango duen eragina dela-eta, kome-nigarria da azpimarratzea administrazio-klausulen baldintza-orrietan ez dela zehazki adierazten ez zerbitzu-ematearen hasiera-data ezta bitarteko aldia edo ekipu-ordezkapenerako epea, esleipen-hartzailearen aldaketa gertatzen den kasuetan. O-NOZen uztailaren 28ko ofizio bat agertu arte, zerbitzua irailaren 1ean hastearen konstantzia espresu eta zehatzik ez dago.

- \* Esleipena baino lehenago, batzorde teknikoak ekainaren 23an Ceimsa enpresari eskatu zion kontratuaren indarraldiaren hasiera-hasiertik (alegia, kontratua sinatu eta biharamunetik) horren xedea guztiz betetzeko haren ahalmen

eta borondateari buruzko azalpena. Azalpen horren zergatia hauxe litzateke: aurkezturiko dokumentazio teknikitik abiatuz, ondorioztatu ahal izango litzateke “aplikatzekoa den araudiak eta administrazio klausula partikularren baldintza orriak galdaturiko moduan zerbitzua osoki emateko izango lukeen ezintasuna”. Hala ere, aipaturiko enpresak honako hau esaten zuen oroitidazkian, espreski: “Produktzioari buruzko gure estimazioen arabera, CEIMSAk bermatu egiten du hiru hilabeteko epean zerbitzuaren ehuneko 100 ematea”.

Batzorde Teknikoak egindako eskakizun horri emandako ekainaren 24ko erantzunean, oroitidazkian adierazitakoa errepikatzen du, nahiz eta ohartarazten duen: “hiru hilabeteko epe hori lehiaketa esleitzen den unetik hasten da kontatzen, ez kontratua indarrean sartzen denetik”. Haien ustez, O-NOZek agindua eman eta berehala gaur egungo ekipoen ordeztasuna enpresa horrek egindakoak jarriak egotetik O-NOZek bermea lortu nahi duela pentsatzea, zalantzarik gabe, interpretazio okerra da, zeren eta:

a) Lehiaketaren xedea ez baita ekipo-hornidura, zerbitzu bat ematea baizik.

b) Gaur egun gutxi gora-behera 900 ekipo baitaude Nafarroako lurralde guztian barreiatuta, eta, zalantzarik gabe, ez da posible guztiak aldi berean ordeztzea kontratuak indarra hartu eta berehala.

c) NOZek, zalantzarik gabe, legean ezarritako bitarteko aldia kontuan hartu behar izan du”.

Ondorioz, horien ustez, “enpresa honek bermatzen duena” hauxe da:

“a) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak horretarako agindua eman eta, egoki diren administrazio-izapideak egin ondoren, berehala zerbitzua ematen hasteko ahalmen eta prestaketa osoa (baldintza-orriko hamabigarren baldintza), gaur egungo nahiz etorkizuneko beharrian guztiak asetuz.

b) Gaur egun dauden ekipo guztiak CEIMSA Electromedicina, S.L.k egindakoekin ordeztzea, lehiaketa esleitzen denetik hiru hilabeteko epean (hau da, gehienez ere 35 egun kontratua sinatzen denetik, baldintza-orriak ezartzen duelako kontratua sinatuko dela onesten denetik 30 egun igaro bitartean, eta sinatu aurretik enpresa esleipen-hartzaileak 25 eguneko epea izango duela eskatzen zaion dokumentazioa aurkezteko)”.

\* Uztailaren 3ko 905/1997 Erabakiaren bitartez, O-NOZeko Zuzendari-Kudeatzaileak zerbitzua Ceimsa enpresari esleitu zion, “1997 urterako (iraila-abendua)”, eta, besteak beste, dei egiten

dio jakinarazpen horretatik hasita 30 eguneko epean kontratua sina dezan.

\* Lehiaketako esleipen-hartzailearekin, CEIMSArekin, alegia, abuztuaren 14an sinatu zen kontratua, eta bere lehenengo klausulan ezartzen du esleipen-hartzailearen konpromisoa baimenduriko gaixoen etxeetan 1997ko irailaren 1ean ekipo guztiak instalatuta edukitzeko. 4. klausulak xedatzen duenez, kontratuak 1997ko irailaren 1ean hartuko du indarra. Esleipen-hartzaileak abuztuaren 8an proposatutako ekipo-jartzeari buruzko plana kontratuari gehituta geratzen da, eranskin gisa.

Kontratua sinatu aurreko egunean, O-NOZen Carbueros enpresaren jakinarazpen bat jaso zen, eta bertan adierazten du zerbitzua ematen segituko duela indarreko kontratuaren iraungipen-datara arte –hau da, 1997ko abuztuaren 31ra arte–, eta Administrazioari eskatzen dio egoki diren neurriak har ditzala gaixoei berri emateko eta irailaren 1etik aurrera ekipoak kentzeak haiei harridura sortzea ekiditeko.

Aldi berean, zerbitzuaren erabiltzaileei ere gutun bat bidali zien, horretan hauxe esanez: “...irailaren 1ean gure teknikariak zure etxera joango dira, instalatuak dauzkagun ekipoak kentzeko asmoz”. Baita ere, esaten du O-NOZek erabaki duela ez dezatela zerbitzua ematen segi, honako hau gehituz: “Erabaki horretan proposamen ekonomikoa bitarteko teknikoaren azterketari eta zerbitzu horien bidez erabiltzaileei eman izan zaien kalitate-bermeari gailendu zaie”.

1997ko abuztuaren 29an, O-NOZeko Laguntza Espezializatuko Zuzendariak gaztigu bat igorri zuen Carbuosera, honako honetaz ohartaraziz, hitzez hitz: “...kontuan edukiz zerbitzu-ematea zure enpresatik esleipen-hartzaile berrira iragatean hainbat doiketa-eza edo oker gerta daitezkeela, are gehiago gaixo-kopurua (gutxi gora-behera, 1200) eta horien sakabanaketa geografikoa (Foru Komunitate osoa) gogoan edukiz, gogorarazten dizuegu beharrezkoa dela oinarrizko eta funtsezko den zerbitzu honen jarraitasuna bermatzea; hainbat gaixorentzat, zerbitzu hori hil ala bizikoa da, eta zerbitzurik gabe uzteak, nahiz eta kontratu-harremana S.E. Carbuos Metálicos, S.A.rekin amaituta egon, laguntzeko betebeharra ez betetzea ekar lezake –betebehar hori izan lezakete gaixoren batek beharra izango balu, kontratu bidezko loturarik egon ala ez egon–; hori dela-eta, ekipoak gaixoei kendu aurretik, horiei zerbitzuaren jarraitasuna bermatu beharko zaie.



Aurreko guztiaren helburu bakarra aipaturiko zerbitzua etenik gabe ematen dela bermatzea eta, azken batean, gaixoen bizia arriskuan ez jartzea da.”

Hala eta guztiz ere, Carburos enpresa, horrek berak adierazitakoaren arabera, irailaren 1eko zortzietan hasi zen gaixoen ekipoak kentzen, kontuan izan gabe ekipo horiek esleipen-hartzaile berriarenek ordeztu zituzten ala ez. Dena den, gaixoak kontrako jarrera idatziz agertzen bazuen, enpresak emandako dokumentu batean, aparatua ez zituzten kentzen.

Dokumentu horretan, baina, adierazten da “erabiltzaileak ezezko biribila ematen diola aparatu horiek kentzeari” eta “jabetzen dela eta onartzen duela Carburos Metálicos ez zaiola betetzen uzten ari lehiaketa galtzearen ondoriozko betebeharrak ekipoak kentzeari dagokionean; beraz, erantzukizuna, administrazio-espeditentak irekitzea eta aparatu horiek kentzea errazteari ezezkoa ematearen ondorioz izan lezakeen edonolako zehapen ere onartzen du”. Aipaturiko enpresaren arabera (1997ko azaroaren 4ko txostena), irailaren 1eko 10:30ak aldera, eginiko bisitaldiak 124 izanik, 64 gaixori ez zitzaizkien aparatua kendu, ordezkorik ez zutelako; 35i kendu egin zitzaizkien, eta ordezkoa bazuten, eta beste 25i kendu egin zitzaizkien, ordezko ekiporik izan gabe.

Bestalde, hainbat gaixok O-NOZi zuzendutako idazkien konstantzia badago. Idazki horietan agertzen dutenez, aurreko esleipen-hartzailearen tratamenduarekin jarraitu nahi dute, eta zerbitzu berria izatearen kontra daude.

#### **CEIMSArekin sinaturiko kontratua desegitea**

\* Prestazio eta Itunen Zerbitzuaren proposamenez, O-NOZeko Zuzendari Kudeatzaileak, irailaren 1ekoa den eta egun horretan bertan jakinarazia izan zen 1109/97 erabakiaren bitartez, CEIMSAk emandako zerbitzua etetea eta kontratua ez betetzearen ondoriozko desegite-espeditentak irekitzea erabaki zuen. Interesatuari hamar egun gaiko epea eman zion, alegazioak aurkezteko. Aipaturiko erabakiak adierazten du haxe gertatu dela: “kontratatik bere gain harturiko kontratu bidezko betebeharren ez-betetze oso larria, horren kausak kontratatari egotzi beharrekoak izanik”. Honako honetan oinarritzen da:

- Aipaturiko Zerbitzuaren txostena, data berekoa. Bertan esaten denez, ez zekiten irailaren 1a baino lehenago enpresak zein gaixori eman zien kontratuaren xede den laguntza, abuztuaren 29an telefono bidez eskatu bazuten ere; esaten da

8etatik aurrera telefono bidezko erreklamazio ugari jasotzen hasi zirela (95 dei 12ak arte, ahalegin gehiago egon ahal izan zitezkeela pentsatzen badute ere). Dei horien parteak badaude, horiek jaso zituzten O-NOZeko langileek eginikoak, eta data, ordua, kausa eta kalteturiko gaixoa agertzen dute. Zehazki, azaltzen dute Tuterako sekzioan ez dela eskura jarri oxigenoterapiako tratamendu berria, eta 92 kasutan aparatua ez dira ordeztu –horietatik 23k ez daukate bat ere, aurreko esleipen-hartzaileak jadanik kendu dituelako– eta 3 gaixo ez daude pozik instalaturiko aparatu berriekin. Laburbilduz, horien ustez larrialdi-egoera bat dago, “gaixo askorentzat hil ala bizikoa eta ordeztuezina den prestazio bat” ukitzen duena, eta horrek kontratua ez betetzea dakar, eta horregatik egiten du jadanik agertutako proposamena.

- CEIMSAren txostena, irailaren 1ekoa, 9:00etan O-NOZeko arduradunekin izandako bilerrara ekarritakoa, enpresak adierazten duenez. Txosten horretatik haxe ondorioztatzen da:

- a) 441 aparatu instalatuak.

- b) 157 instalatu gabe, justifikatu eta zenbatesen dituzten kausak direla-eta, ez egoteagatik, ez aurkitzeagatik, txosten medikorik ez edukitzeagatik, tratamendua eteteagatik eta gaixoen heriotza edo ezezkoagatik.

- c) Hitzez hitz dioenez, “guztira baimenduriko 941 gaixo izanik, eta telefono bidez aurkitu ahal izan ez diren 87 gaixo gehituz, azken kalkuluaren emaitza da egin gabeko instalazioen ehuneko 38 CEIMSAri egotz dakiokela”. Hala ere, ekarritako datuak ikusiz, kalkulu eta portzentaia horiek nola zehaztu edo oinarritzen diren ez dakigu. Txostenaren gorputzak sakondu egiten du ekipo guztiak ez instalatzea eragin duten kausen azalpenean. Instalatzerakoan honako hauetan gauzatutako zailtasun larriekin topo egin duela dio: gaixoen helbideari eta telefonoari buruzko okerrak, beharrezkoak diren parametroak dituzten txosten medikoak eskura ez edukitzea (14 kasu), “aurreko enpresaren iruzkinak eta ekintzak”, abuztua oporraldia izatea eta epe-mugaren aurreko eguna aste-bukaera izatea.

- Baita ere, O-NOZek hala eskaturik, aipaturiko eguneko 11:00etarako instalaturiko ekipoen zerrendak aurkezten ditu, “CPAP eta aerosolak”; hau da, aurreko lerroaldean aipatu dugun txostena prestatu eta hainbat ordu geroago, eta txosten horretan aipatzen dena baino kopuru nabarmenki txikiagoa adierazten du (236, aipaturikoa 283 izanik, gutxi gora-behera).

- \* Irailaren 2an, CEIMSA O-NOZi zuzendu zitzaion, haxe adieraziz: jadanik instalatuak

zeuzkala, bakoitza zegokion helbidean, zerbitzua emateko beharrezkoak ziren aparatuen erdia baino gehiago, eta instalatzeko prest zeuzkala gainontzeko aparatu ia guztiak, eta beharrezkoak ziren aparatuen instalatzen segi ote zezakeen jakiteko argibideak eskatzen zituen. Administrazio eta Giza Baliabideen Zuzendariak erantzuna bidali zion enpresari, hilabete horren 5eko data zuen idazki baten bidez, esanez jadanik instalaturiko aparatuen enpresak ezin zituela funtzionarazi, eta instalatu gabeko gainontzeko ekipoak instalatzeari ekin nahi izatea ere ez zela onargarria.

\* Irailaren 12an CEIMSAk alegazio-idazkia aurkeztu zuen kontratua-desegiteko espedientea hastea zela-eta, eta urriaren 21eko beste batekin zabaldu zuen. Idazki horietan onartzen denez, "instalaziorako aurreikusitako epeak ez dira bete... ,... berandutza izan da..." eta "egia da irailaren 1ean ekipo asko instalatzeko zeudela gaixoen etxeetan...". Baina, bere ustez, berandutza "...erabat justifikatua izan da, eta guretzat saihestezina...". Hauxe argudiatzen du:

- Gaixoen zerrendetan oker ugari daude, helbide, telefono eta abarri dagokionez, eta ehuneko 40 baino gehiago osatzen dute.

- Preskripzio medikuen gabezia; horrek askotan aparatua gaixoari instalatzea eta hori nola erabili irakastea eragozten du, esaten dutelako zerbitzua ezin dela mugatu "...etxe bakoitzean aparatu bat uztera...". Haien ustez, zailtasun hori "erabiltzaileen zerrendako okerrak baino are larriagoa da".

- Aurreko esleipen-hartzailearen jarrera eragozpen-jartzailea. Horren erakusgarri da, besteak beste, zerbitzu-ematea uzteari buruz erabiltzaileei hasieran bidalitako gutuna, eta, ondoren, gaixoen etxeetatik ekipoak kentzea, horiek berehala ordeztuak izatearen bermerik gabe, O-NOZek galdaturikoaren aurka.

- Beharrezkoak ziren ekipo guztiak edukitzea; hori zela-eta, zerbitzua emateko "berehalako operatibitate-baldintzetan" aurkitzen zen.

- Azkenik, enpresak irailaren 1eko bere txostenean aurkitzen den instalazioen egoera-orria aipatzen du, hauxe adieraziz: "bertan, ohar bat egiten zen, esanez azken kalkularen arabera CEIMSAri egoztekoa zen burutu gabeko instalazioen kopurua ehuneko 38koa zela. Baieztapen hori ez dator bat errealitatearekin, eta hori esan zen baieztapena idatzi zuen pertsonak ez zuelako ezagutzen Administrazioaren ez-betetzea, alegia, gure lanerako beharrezkoak ziren datuak emateari buruzkoa, aurreko lerroaldeetan adierazi bezala. Benetan, CEIMSAk lanean jardun du

Administrazioak jadanik bere betebeharrak bete izan balitu bezala, baina dagoeneko ikusi eta azaldu dugu ez dela horrela izan, gure lanerako ezinbestekoak diren datuak ez dizkigulako eman".

\* Kontratua desagiteko prozedurako azken egintza baino lehenago, Prestazio eta Itun Zerbitzuak txosten teknikoak eman zuen, 1997ko urriaren 2ko data zuena, eta, bertan, CEIMSAk alegaturikoaren aurka egiten zuen, ondorio hauetara iritsiz:

- Instalatu gabeko aparatuen kopurua –esleipen-hartzailearen txostenak berari egoztekoa ehuneko 38a zela esaten zuen– handiagoa dela jotzen du, enpresa horrek aurkeztu zuen instalaturiko aparatuen zerrendaren arabera (228, txostenean aipatzen dituenak 441 izanik); bestalde, Carbuosen irailaren 4ko txostenetik ondorioztatzen da ez-betetzea ehuneko 71,8koa izan litekeela, eta uste du jasotako eta erregistratutako telefono-deietatik lortzen diren datuek agertzen dutela, euren indarrez, data horretan (irailaren 1a) 107 gaixo zeudela zerbitzurik gabe. Bestalde, Carbuosek espreski onartzen du 24 gaixori ekipoa kendu zitzaiela ordezeko aparatuek eduki gabe. Labur esanda, Zerbitzuaren aburuz gertatu dena hauxe izan da: "irailaren 1eko datarekin, zerbitzu-ematean ez-betetze hedatua gertatu da, esleituriko... eta behin eta berriro espreski onartutako kontratutik eratorritako konpromisoaren aurka".

- CEIMSAri eskuragarri zegoen informazio guztia eskaini zaio, behar adinako aurrerapenez, eta oker-portzentaia nemiñoa izan da. Gainera, Osasun Txartel Indibidualera joz gero, horri itzur zekiokkeen, esleipen-hartzaileari eskaini bezala; horrek 8 gaixo baino gehiagori buruzko informaziorik ez zuen eskatu. Zehazki tratamendu medikuari dagokionez, uste du enpresaren erantzukizuna zela horiek erabiltzaileei eskatzea, erabiltzaileen eskuetan zeudelako.

- Ez-betetze larria, azken batean, "ekipoak gaixoen etxeetan ez instalatzean datza, dirudienez, enpresak ez zituelako guztiak eskura, horrek behin eta berriro esandakoaren aurka...".

\* Aipaturiko txosten teknikoaren ondoren, urriaren 9an O-NOZeko Araubide Juridikoaren Zerbitzuburuaren txosten juridikoa eman zen, eta, azaldutakoa ikusiz, kontratistari egoztekoa zen "kontratutik eratorritako funtsezko prestazioaren ez-betetze oso larria" gertatu zela ondorioztatzen zuen, eta honako hau zioen:

"Beraz, detektaturiko urratze horretan larritasun eta erruduntasun ezaugarriak biltzen direnez

(gainera, erruduntasuna astunago egiten du zerbitzuaren bermeari dagozkion eta enpresak behin eta berriro azaldu dituen konpromisoak hautsi izanak), enpresariak egindako urrapenean oinarrituriko kontratu-desegiterako proposamena zuzena dela ondorioztatu behar da. Horretarako baimena ematen dute Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Legeko 112. g) artikulua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Legeko 81.1. b) artikulua eta administrazio klausula partikularren orriek beraiek ere, enpresaren jarrera hori hamazazpigarren idazatian (1., 2. eta 4. zenbakiak) sartuta dagoela uler baitaiteke". Bestalde, txosten juridiko horretan jotzen zen kontratua desegitea erabaki baino lehenago Estatu Kontseiluaren irizpena eskatu behar zela.

\* Enpresak eginiko urratzearen ondorioz oxigenoterapia eta bestelako arnas-terapien zerbitzua emateko kontratua desegiteko O-NOZeko Zuzendari Kudeatzailearen erabaki-proposamena zela-eta, Nafarroako Gobernuak Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuak txostena eman zuen 1997ko urriaren 29an. Txosten horrek ondorioztatu zuen kontratistak eginiko urratze larrian oinarrituriko kontratu-desegitea erabakitzeko legezko baldintzak biltzen zirela, urratzeak neurri hori hartzea justifikatzen zuela.

1997ko abenduaren 29an eginiko bilkuran, Nafarroako Gobernuak onetsi egin zuen aipaturiko zerbitzua emateko kontratua enpresak eginiko urratzean oinarrituz desegiteko baimena ematen zuen Erabakia.

Azkenik, aipatu diren aurrekari guztietan oinarrituz, O-NOZeko Zuzendari Kudeatzaileak, otsailaren 4ko 42/1998 erabakiaren bitartez, jadanik aipatu den CEIMSAr esleituriko kontratua desegin egin zuen. Erabakiaren testuaren arabera, urratze horrek argi eta garbi uzten zuen agerian organo partehartzaileek enpresa esleipen-hartzaileak data jakin batean zerbitzua emateko zeukan gaitasunari buruz izan zituzten zalantzak, behin eta berriro egindako eskaerak eta eskaturiko argibideak gora-behera.

- Aurreko prozesu guztiaren ondorioz, berriro ere Carbuos Metálicos enpresarekin sinaturiko kontratua luzatu egin zen, hasierako indarraldia 1997ko irailetik abendura artekoa izanik. Horrela, 1997ko azaroaren 3an aurreko luzapena erabaki zen "1997ko irailaren 1etik O-NOZ eta CEIMSAREN artean sinaturiko kontratua desegiteko espediente amaituko duen administrazio-erabakiaren datara arte, eta, gehienez ere, 1997ko abenduaren 31ra arte".

### Laburtuz, 1997an zehar zerbitzua eman da:

|                  |                         |                   |
|------------------|-------------------------|-------------------|
| Urtarrila-Ekaina | Salbuespeneko kontratua | Carbuos Metálicos |
| Uztaila/Abuztua  | Kontratuaren luzapena   | Carbuos Metálicos |
| Irailaren 1a     | Esleipena-Desegitea     | Ceimsa            |
| Iraila-Abendua   | Kontratuaren luzapena   | Carbuos Metálicos |

### 3. EPEA: 1998

Txosten hau idazteko garaian, O-NOZa hautapen-prozesu berria burutzen ari da. Hori ebatzi eta apirilaren 3ko erabakiaren bitartez, zerbitzuatea, berriz ere, luzatu egin zaio Carbuos enpresari, 1998ko urtariletik ekainerako eperako.

Era berean, adierazi behar da aurreko esleipen-hartzaileak –Ceimsa– errekurtsu arrunta aurkeztu duela Nafarroako Gobernuaren aurrean, kontratua desegiteagatik, eta errekurtsua erabakitzeko dagoela. Txostena eztabaidatzeko fasean, Ceimsa enpresak bere asmoa atzera bota zuela eta aurreko bere errekurtsua kendu zuela jakinarazi zitzaigun; horregatik, hasiera batean errekurritutako desegite-erabakia irmo bihurtu da.

### Enpresa partehartzaileak

1996ko irailaren 30ean itxitako ekitaldikoak diren Sociedad Española de Carbuos Metálicos, S.A.ren urteko kontu batueratuei buruz Barcelonako Merkatal Erregistroak emandako Informazio Ohar baten arabera, horren menpeko sozietateak honako enpresa hauek dira:

| Enpresak      | Partehartze-portzentaia |
|---------------|-------------------------|
| Oxigasa, S.A. | %95                     |
| Oximeca, S.A. | %100                    |

Beraz, Carbuosiek ia osoki kontrolatzen ditu Oxigasa eta Oximeca enpresak, hain zuzen ere, CEIMSAREkin batera O-NOZEN azken esleipen-prozesuetan parte hartu dutenak.

Carbuos eta Oxigasaren arteko harreman hori honako hauek ere agertzen dute:

- Biek, Iruñeko ordezkarietara, helbide berbera dute.
- Orain arte parte hartu duten lehiaketetan, biek eskaintza ekonomiko berberak aurkeztu dituzte. Eta, O-NOZEN Prestazio Zerbitzuaren arabera, biek parte hartu zuten ordezketa-prozesuan ez dago erabilitako ekipoen eta giza zein material baliabideen ordezketa konstantziarik.

### III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Jasotako eskakizunari jarraituz, fiskalizazio-lanaren helburuak honakoak dira:

1. helburua. CEIMSA Electromedicina, S.L. enpresarekin sinaturiko kontratua desegiteko prozesua indarreko araudiari jarraituz burutu dela egiaztatzea.

2. helburua. Carbuos Metálicos enpresari egini-ko esleipen berria edo berriztatzea, bere salbuespen-izaera kontuan izanik, ezarritako legeko betebeharrak betez burutu dela ziurtatzea.

Eskakizunari eta prozesu honetan biltzen diren baldintzei jarraituz, Ganbara honek gogorarazten du egin beharreko lana, bere ardurapean dituen eginkizunen arabera, fondo publikoen fiskalizazioaren eta ekonomi zein finantz kontrolaren ikuspegi-rik burutuko dela, zeren eta, horrelakorik suertatuz gero, kasuan kasuko organo judizialari baitagokio eskumena bai prozedura horien legezkotasunari buruzko ebazpena emateko, baita ikuskatuko diren administrazio-jarduketek baliozkotasun juridikoa ezartzeko ere.

Aurreko helburu horiek lortzeko, Kontuen Ganbara honek erabili ohi dituen kontu-ikuskaritzako prozedurak eta programak aplikatu dira, haren Kontu Ikuskaritzako Gidan jasoak eta Espainiako Estatu-ko Kanpo Kontrol-eko Organo Publiko-ko Koordinazio Batzordeak onetsitako Sektore Publiko-ko Kontu Ikuskaritzako Arau eta Printzipioen barruan garatuak daudenak, bereziki kontratazio publikoaren legezkotasun-ikuskapenari dagozkio-nak.

Jarduketek denbora-esparruari dagokionean, lanaren arreta nagusiki desegiteari eta horren ondorengo behin-behineko esleipenari –1997ko iraila– zuzendu bazaie ere, aurrekari- eta gaur egungo egoeraren deskribapen eta analisisa ere egin dira, horiek ezinbestekotzat jotzen baitira behar bezala ulertzeko zein baldintzatan burutu ziren Parlamentuaren eskakizunaren edukia osatzen duten jarduketak.

Ikuskaturiko jarduketak testuinguru egokian kokatu ahal izateko, komeni da adieraztea sanitate publikoak behar bezala funtzionatzeko derrigorrezkoa den eta aztertua izan den zerbitzu publikoaren izaerak berak eragina izan duela buruturiko administrazio-prozesu guztietan.

Txostena lau idazatitan banatua dago, eta horietan agertzen dira bai helburu eta aurrekariak baita eginiko lanetik ateratako ondorioak ere.

Zelaiko lana 1998ko martxoan eta apiril-ean burutu da. Egileen taldea kontu ikuskaritzako tek-

nikari batek, legelari batek eta kontu ikuskatzaile batek osatu dute, eta Kontuen Ganbarako informatika eta administrazio zerbitzuen lankidetzara iraukorra ere izan dute.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileei lan hau egiteko eman diguten laguntza eskertu nahi diegu.

### IV. ONDORIOAK

Kontuan izanik Parlamentuaren eskakizuna, eginiko fiskalizazioaren norainokoa eta, horrelakorik suertatuz gero, organo judizialei dagokiela ikuskaturiko prozeduren legezkotasunari buruzko ebazpena emateko eskumena, eginiko lanaren ondorio nagusiak azalduko ditugu jarraian:

#### 1. CEIMSAREKIN SINATURIKO KONTRATUA DESEGITEA

Foru Komunitateko sanitate publikoaren erabil-tzaileek jasotzekoa den oxigenoterapia, aerosol-terapia, bentilazio mekaniko eta etxez etxeko beste-lako terapien zerbitzuaren kudeaketa egiten da zerbitzu publikoak zeharka kudeatzeko itunak enpresa pribatuarekin sinatuz. Hala ere, horiek mugitu diren merkatuaren bereizgarria da eskaintza oso zurruna izatea, eta hori gauzatzen da lehia askea oztopatzen duen egoera ia monopo-lista batean.

Testuinguru horretan, Ceimsa enpresa, lehen-go aldiz, lehenagotik zerbitzu hori eman ohi zuten Carbuos eta Oxigasa enprekin batera aurkeztu zen O-NOZek 1997an egindako lehiaketara. Hautapen-prozesuaren ondorioz, kontratazio-organoak zerbitzu-ematea enpresa horri esleitu zion, eskaintza merkeagoa aurkeztu baitzuen, 191 milioikoa, aurrezpena 23 milioikoa izanik eta kalitate teknikoaren aldetik maila berekoa, gutxi-erik. Zehazki, CEIMSAri 64,01 puntu esleitu zitzaizkion; Carbuos eta Oxigasaren eskaintzei, ordea, 30 puntu.

1997ko abuztuaren 14an sinaturiko kontratua- ren arabera, aipaturiko urteko irailaren 1eko 00:00 orduetan sartuko zen hori indarrean.

Egun horretan, eta gutxi gora-behera 11etan –espedientearen dagoen dokumentazioaren analisi objektiboaren arabera–, ikusi zen esleipen-har-tzaileak ez zuela behar adina aparaturo-ko kontrata- turiko zerbitzuaren xede zen tratamendua eska- tzen zuten gaixo guztiei zerbitzu hori emateko, eta horrek larrialdiko egoera bat ekarri zuen hil ala bizikoa eta ordeztu ezina den zerbitzu batean.

**Ondorio** gisa, Ganbara honek pentsatzen du Administrazioak kontratuko baldintzei hertsiki



jarraituz jardun zuela, eta, prozeduraren ikuspegi-tik, modu zuzenean, kontratuaren kautelazko etena eginez eta kontratua desegiteko prozedura hasiz, esleipen-hartzaileak kontratuan ezarritakoa modu larrian urratu zuela ikusirik.

Aurreko ondorio hori, ordea, zehaztu egin behar da, honako gogoeta hauetako salbuespe-nak kontuan edukiz:

**a) Prestazioaren hasiera-data zehatza.**

Lehiaketa arautzen duten baldintza-orriek ez dute aipatzen zein data zehaztuta hasi behar duen esleipen-hartzaile berriak zerbitzua ematen. Horrela, ba, ez zaio jaramonik egiten Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorreko 211.7 artikulua espreski aurrekusten duenari, alegia baldintza-orriek zehaztasunez ezarriko dutela zein datatan hasiko den kontratua indarrean izaten.

Litekeena da espediente honetako alderdirik eztabaidatuenetakoa izatera iritsi den zehazgabetasun horrek eragina izatea, hasieran, behintzat, enpresa lehiatzaileetan beraietan, euren jardueren garapenaren eta aurkezturiko oroitidazki teknikoetan horiek izan beharreko agerpenaren plangintza material eta denborazkoa egiteko garaian.

Kontratua esleitu aurretik CEIMSAk aurkezturiko oroitidazki teknikoari eta idazki argigarriari jarraituz, enpresa horrek bermatu egiten du ekipamendu guztiak esleipenetik hasita –hau da, uzta-laren 3tik– hiru hilabeteko epean ordeztzea; hala-ber, berretsi egiten du erabat prest dagoela zerbitzua ematen hasteko O-NOZek horretarako agindua eman eta berehala, egoki diren adminis-trazio-izapideak egin ondoren eta gaur egungo nahiz etorkizuneko beharrian guztiei erantzuna emanez.

Uztailaren 28ra arte itxaron behar da, O-NOZek Ceimsa argi eta garbi eta zehaztasunez ohartarazteko ekipo guztiek 1997ko irailaren 1ean ordeztuta egon behar dutela.

Aurkezturiko ordezketa-plan baten bitartez onartu zuen enpresak konpromiso hori, eta abuztuaren 14an izenpetutako kontratu-dokumentuan formalizatu zuen. Dokumentu horrek, eranskin gisa, aurreko inkompatzio-plana zeukan; horri jarraituz, kontratuak irailaren 1eko 00:00 orduetan hartuko zuen indarra, ekipamendua abuztuaren 20tik aurrera ordeztu behar bazen ere, muga irailaren 1a izanik.

Beraz, hasierako aurreikuspeni eta aurkezturiko eskaintzari jarraituz, Ceimsak aparatua eslei-

penetik hiru hilabeteren buruan –hau da, urriaren 3an– ordezteko konpromisoa hartzen zuen; hala ere, sinaturiko, eta, beraz, enpresak onarturiko kontratu-dokumentuaren arabera, ordezketa irailaren 1ean amaitua behar zuen egon, hau da, hilabete lehenago.

Nolabaiteko ziurgabetasun juridikoko egoera nahasi hori ez zatekeen sortuko orain dituen ezaugarriekin, baldintza-orriek zerbitzu-ematearen hasiera-data zehazki definitu izan balute.

Baina, gainera, komenigarria da haxe adieraztea:

- Ez dago erasota modu fedemailean Adminis-trazioak inongo jarduketarik burutu duenik, Ceimsa enpresa baldintzak betetzeko egoeran aurkitzen zela eta are fisikoki egiaztatzeko asmoz kontratuak indarra hartu aurretik, funtsezko kues-tio horrek hautapen-prozesu osoan zehar eragin zizkion susmo eta zalantza guztiak gora-behera.

- Carburosekin sinaturiko kontratuaren azken luzapena, esleipenaren aurretik, bi hilabeterako da, eta 1997ko ekainean sinatu zen. Ordurako, Administrazioak berak bazekien CEIMSAren eskaintzak, hasieran bederen, hiru hilabete ezar-tzen zituela aparatua guztiak edukitzeko. Hala eta guztiz ere, luzapena bi hilabeterako besterik ez zen egin.

Gainera, Administrazioak berak aurreko eslei-pen-hartzaileari zerbitzu-ematearen jarraipena exijitu ahal izan zion, zerbitzu publikoaren oinarri-zko eta funtsezko izaera kontuan edukiz.

- Ekipo-ordezketa hilabeteko aurrerapenez ezin zuela egin ohartu baldin bazen, Ceimsa enpresak espreski adierazi beharko zukeen, bere inkompatzio-planean horixe adieraziz eta ez kontratuan bertan sinatuz.

**b) Bitarteko aldia.** Oxigenoterapia eta beste-lako terapietarako etxez etxeko laguntzak, oxige-no-horniduraz gain eta hori baino lehenago, eki-poak eta terapiarako materiala garraiatu, instalatu eta egokitzea nahiz gaixoei edo horien ahaideei zerbitzuak behar bezala erabil ditzaten beharrez-koa den prestakuntza ematea hartzen du bere barnean.

Jarduera-multzo honetarako betebeharrak garrantzi berezia eta halako konplexutasuna har-tzen dute zerbitzuaren kudeatzailea aldatzen bal-din bada, foru lurralde osoan gutxi gora-behera 1200 gaixoren ekipamendua ordeztzea eskatzen baita.

Hala ere, lehiaketa arautzen duten baldintzarrietan ez da aurreikusten "bitarteko aldi" dei genezakeena, enpresa kontratista ordezten den kasurako. Kontratazioari buruzko indarreko araudiak horrelakorik eskatzen ez duen arren, administrazio onaren alorreko printzipioen artean aurreikusi beharrekoa dela dirudi, are gehiago enpresa edo bitarteko pertsonal edo teknikoak ordezten aurretiazko esperientzia errealik existitzen ez zela kontuan hartuz. CEIMSari zerbitzua ezartzeari buruzko plan bat eskatzea, baldintzarriek aurreikusten ez zuten arren, gutxieneko neurri bat zen, baina, gure ustez, ez zen nahikoa aparatu guztiak aldi berean ordeztearen kasua behar bezalako zuhertasunez aurreikusteko, eragiketa hori dela-eta sor litezkeen gorabeherak kontuan edukiz.

Egoera horren aurrean, ikusten dugu uztera doan kontratistak –Carburosek, alegia– zerbitzua abuztuaren 31ko 24 orduak arte emateko eskubidea eta obligazioa duela, eta kontratu berriak irailaren 1eko zero orduetan hartzen duela indarra. Beraz, teorikoki, existitzen ez den denbora-tarte horretan foru lurraldeko aparatu guztiak ordeztu behar izango ziren. Eta ordezketa hori aipaturiko data baino lehenago egin behar baldin bada, kontratuak ondorioak lehenagotik sortzen dituela ere ondorioztatu ahal izango litzateke.

Beraz, begi-bistakoa dirudi bi kontratistek aldi berean jardungo duten hasierako denbora-tarte bat beharrezkoa dela, hauxe bermatzeko: kontratutik horiei eratorritako eskubide eta betebeharrak zehazki betetzen direla eta, azken finean, gaixoak zerbitzuaren jarraitasunaren bitartez babestua geratzen direla. Iragate-prozedura formalizatu horrek bi kontratisten eta O-NOZen beraren inplikazio zuzena beharko zukeen.

Gainera, kasu honetan, ezin daiteke ahatz uztera doan kontratistak, gaixo guztiei enpresa-aldaketaren berri desitxuratua ematen zuen jakinarazpena igortzeaz gain, hainbat aldiz, O-NOZek emandako jarraibideei aurka eginez, bere aparatuak berreskuratzeari ekin ziola, ordeztuak izan zitezten itxaron gabe. Jokabide horrek, gure iritziz, Administrazioaren nolabaiteko ekintza bat eragin beharko zukeen.

Bestalde, Administrazioak datu-base guztiz fidagarri bat eskaini behar du, gaixo guztien identifikazio, kokapen eta jarraibide medikuei buruzkoa, zerbitzu-emaile batetik bestera iragatea erraztuko duen lanabesa izan dadin, besteak beste.

**c) Desegite-espeditentea.** CEIMSarekin sinaturiko kontratua desegiteko espeditentea Kontra-

tuei buruzko Foru Legeko 16. artikuluan ezarritako forma-betekizunei erabat egokitu zaie. Hain zuzen, artikulua horretara egiten du espreski igorpena administrazio-klausula partikularren orriko 17. klausulak. Eskematikoki, prozedura horrek honakoa galdatzen du:

- Kontratistari entzutea ematea.
- Dagokion departamentuaren txosten tekniko eta juridikoak.
- Lehendakaritza Departamentuko Aholkularitza Juridikoaren txostena, kontratuak 150 milioiko kopurua gainditzen baldin badu.

Dokumentu eta txosten horiek guztiak fiskalizaturiko desegite-espeditentean aurkitzen dira.

Alabaina, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeko 60.3 artikulua xedatzen duenez, beharrezkoa izango da Estatu Kontseiluaren edo kasuan kasuko Autonomia Erkidegoko organo aholkuemaile baliokidearen txostena kontratu-amaiarazpenaren kasuan, baldin eta kontratistaren oposizioarekin formulatzen bada, O-NOZeko Zerbitzu Juridikoak berak azpimarratzen duen bezala.

Beraz, araudien arteko balizko gatazka baten aurrean gaude, zeren eta Estatuko legediarentzat organo aholkuemaile nagusiaren edo autonomi erkidegoko horren baliokidearen irizpena, kontratua amaiazi baino lehenago emandakoa, obligatiboa den bitartean, foru araudiarentzat irizpen hori ez litzateke beharrezkoa izango.

Balizko gatazka hori ebaztea ez dago Kontuen Ganbara honen fiskalizazio eginkizun edo esumenen artean. Dena den, esan beharrekoa da Foru Administrazioak foru lege batean xedaturiko amaiazi-prozedura hertsiki eta formalki bete duela, puntu zehatz honetan foru legea eta Estatuko legea bat ez badatoz ere.

Gure ustez, kasu guztietan, Foru Komunitatean izaera horretako organo aholkuemaile bat eratzeta edo kontratuei buruzko foru legediak Estatuko Kontseiluaren eskuhartzea aipatzea izango lirateke arlo honetan ager litezkeen gatazkak etorkizunean ebaztea ahalbidetuko luketen formulak. Nafarroako Gobernuak Aholkularitza Juridikoa Estatuko Kontseiluaren baliokide litzatekeen organo aholkuemaile batekin ezin da parekatu, zeren eta, bertako langileen prestakuntza juridikoaren eta lanbide-zintotasunaren kalterik gabe, Foru Komunitateko Administrazioaren egituraren txertatuta baitago, eta, aholkularitza-eginkizunez gain, horren interesak auzitegietan defendatzea baitagokio.



## 2. CARBUROS METALICOSI ESLEITZEA EDO BERRITZEA

- Irailaren 1ean, CEIMSArekin sinaturiko kontratua etenda zegoelarik, O-NOZek Carburossi proposatu zion, baita horrek proposamena onartu ere, zerbitzua ematearen ardura bere gain harrezala. Esleipen hori 1997ko azaroan formalizatu zen, eta epe-mugatatzat ezarri zuen amaiarazpen-espeditentea bukatzen zen unea, eta, gehienez ere, urte horretako abenduaren 31 arte.

Gure iritziz, eta **ondorio** gisa diogu, O-NOZek zuzen jardun zuen, oinarritzakoa eta ezinbestekoa den osasun-zerbitzu bat ematen jarrai zedin bermatzeko bai Estatuko araudiak bai kontratazioari buruzko foru araudiak aurreikusitako larrialdikasuetako batean baitzegoen.

- Alabaina, aurreko esleipenean eginiko epe-aurreikuspen akastunaren ondorioz, epea bukatzean –1997ko abenduaren 31n– ez zen amaitu edo ebatzi ez amaiarazpen-espeditentea ez hautapen-prozesu berria. Beraz, O-NOZek, 1998ko apirilaren 3an, berriro ere kontratua luzatu zion Carburossi enpresari, urte horretako urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitarteko eperako.

Luzapen hori, berandutza nabariz eta modu desegokian eginga izateaz gain, jadanik hiru hilabete lehenago iraungitako kontratu bati egin zitzaion, eta iragarpen nahiz lehiaketarik gabeko eta behar adina justifikatu gabeko zuzeneko kontratazio bat bilakatu zen.

- Aurreko ekintza hori ezin da bakarka hartua izan; 1996 urteaz geroztik, O-NOZa esleipenak egiten aritu da “salbuespeneko luzapen edo kontratazioak” izenpean; horretarako, dirudienez, “gertakari hondamen-eragileak, arrisku larria dakarten egoerak edo segurtasun publikoa ukitzen duten beharrianak” argudiatu ditu, alegia, Administrazioak berehala esku hartu beharreko kasuak, kontratazio-araudiak aurreikusitako formazko baldintzak betetzeko beharrik izan gabe.

Gure iritziz, ordea, egintza horietan ez dira betetzen larrialdi-egoerarako aurreikusitako baldintzak, irailaren 1eko kontratu-etenaldiari buruzkoa izan ezik. Beraz, esleipen-prozesu horietan hauxe gertatzen da:

a) Iragarpen eta lehiaketa printzipioak ez dira errespetatzen.

b) Horrela jarduteko modua ez dago beti behar bezala justifikatuta.

c) Kontratazio-erabakiak, kasu jakin batzuetan, garaiz kanpo eman dira.

d) Indarreko epeak modu okerrean ezarri edo zehaztu dira, eta kontratazio horiekin aurre egin nahi zaien egoerak konpontzeko eskas gertatzen dira ia beti.

Praktikan, jarduteko modu hori honako honetan gauzatzen da: behin-behineko esleipenak edo esleipen iragankorrak zerbitzua ematen duten enpresa berei egiten zaizkie. Hori neurri batean azal daiteke merkatu honetan mantentzen duten monopolio-posizioaren bidez.

Parlamentuaren eskakizunaren **ondorio** gisa, eta azken laburpen bat eginez, prozeduraren ikuspegi hertsia batetik eta kontratuan ezarritakoa kontratuan hartuz, Administrazioak foru araudiak jasotako legezko xedapenei jarraituz jardun du; bai CEIMSArekin zeukan kontratua amaiaraztean, bai ondoren Carburossi enpresari esleipena egitean ere.

Halaber, adierazi behar da prozesuaren azken emaitzan eragin erabakigarria izan dutela Ceimsa enpresak hartutako erabakiek, bereziki zerbitzua emateko oinarritzakoa diren hainbat baldintza eta epe ez betetzeari dagokionean.

Horrekin batera, Administrazioaren jardunean hainbat akats aurkitu da, honakoak kasu:

- Zerbitzua ematen hasteko epearen definizioa baldintza-orrietan zehaztu gabe agertzea.

- Zerbitzu-ematearen aldaketa errazteko formalizaturiko bitarteko aldirik ez egotea, bereziki ekipoei dagokienean.

- Prozesua planifikatzean eginiko aurreikuspen okerrak.

- Gaixoen eta horientzako jarraibide medikuen datu-base egokia eskura izateari dagokiona.

- Itundurikoa Ceimsa enpresak bete zezakeela aurretik egiaztatzeari dagokiona.

- Gaixoei aparatuak ordeztearen gaineko benetako kontrola egiteari dagokiona.

Aurreko puntuak alde batera utziz, kontratua amaiarazteko prozesuan Estatuko Kontseiluak edo organo baliokide batek parte hartzeari buruz foru araudia eta estatukoa izaera honetako egin-tzetan bat ez datozela azpimarratu behar dugu. Horren ondorioz, arlo horietan gatazkak sor daitezke, eta, horregatik, eskumena daukatenek –Nafarroako Parlamentua eta Gobernua– puntu horri irtenbidea aurkitzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko lituzkete.

Lan hau egitearen arduradun den Ignacio Cabeza del Salvador kontu-ikuskatzaile jaunak

proposatuz eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

### **GEHIGARRIA. BERANDUAGOKO GERTAKARIAK**

Behin betiko txostena idazteko fasean, Ganbara honek informazioa eskatu zion NAFINCO enpresa publikoari berriki Ceimsa enpresari emandako hainbat laguntzari buruz.

1998ko ekainaren 22an, NAFINCO enpresak laguntza horiek eman direla berretsi zuen, honako hauek direla-eta:

- CEIMSAk buruturiko jarduerak, bere berrikuntza teknologiko bereziagatik, izaera estrategikoa du Foru Komunitateko industria medikuaren esparruan, bereziki bentilazio mekanikoaren alorrean.

- Une honetan, finantza-oreka berreskuratzeko beharra du, dituen inbertsio-beharrizan berriei behar bezalako bermearekin aurre egin ahal izateko.

- Nafincok emandako finantza-laguntza honetan datza:

a) Epe laburreko mailegu bermatua, 180 milioi pezetako zenbatekoa duena, 1998ko maiatzaren 15ean sinaturikoa.

b) Gehieneko muga-epea 18 hilabetekoa, hau da, 1999ko azaroaren 15era artekoa.

c) Interes-tasa urteko ehuneko 2koa, muga-epearen bukaeran printzipalarekin batera ordaindu beharrekoa<sup>(1)</sup>.

d) Aplikazioa: Oxigenoterapia eta bestelako terapietarako ekipoen fabrikazioa, erosketa eta mantenimendua finantzatzea, hartzekodunei kontratuaren data arte ordaintzeke dauden kopuruak ordainduz.

e) Bermeak. Honako berme hauek eratu dira:

1. Bahitura-eskubide erreala, sozietatearen kapitala banatzen deneko partaidetzen ehuneko 89,5ekoa.

2. Izakinen gaineko lekualdaketarik gabeko bahitura. Hirugarren batek 203 milioitan balioetsi

ditu izakinak, eta gehienez ere horiek 15 hilabete epean erosteko kontratua sinatua dauka.

Azken batean, Ganbara honek aurreko txosten batzuetan adierazi bezala, enpresa pribatuei laguntzak emateko enpresa publikoak erabiliz, laguntza emateko salbuespeneko prozedura baten bitartez, Krisialdian dauden Enpresei buruzko Foru Legean eta gainontzeko arauetan finkaturiko bideak ordeztzen ari dira. Prozedura horrek ez du agerpen zuzenik Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-kontabilitatean, nahiz eta bera izan, azken batean, arriskuak bere gain hartuko lituzkeena, onuradunak bere betebeharrak beteko ez balitu.

### **I. ERANSKINA. OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

Honako alegazio-idazki honen bitartez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak txosteneko 16. orrialdean jasotako eta jarraian kopiaitutako ondorioarekin ados dagoela azaldu nahi du:

“Ondorio gisa, Ganbara honek pentsatzen du Administrazioak kontratuko baldintzei hertsiki jarraituz jardun zuela, eta, prozeduraren ikuspegitik, modu zuzenean, kontratuaren kautelazko etena eginez eta kontratua desegiteko prozedura hasiz, esleipen-hartzaileak kontratuan ezarritakoa modu larrian urratu zuela ikusirik.”

Era berean, aurreko ondorioa zehazten duten eta txosten horretako 16. eta ondorengo orrialdeetan agertzen diren gogoetekiko desadostasuna agertu nahi da, jarraian agerturikoa egiazkoagoa eta ziurtaturiko gertakariei lotuagoa dela jotzeagatik:

(1) 16. orrialdeko azken lerroaldea: “Lehiaketa arautzen duten baldintza-orriek ez dute aipatzen zein data zehaztuta hasi behar duen esleipen-hartzaile berriak zerbitzua ematen. Horrela, ba, ez zaio jaramonik egiten Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorreko 211.7 artikulua espreski aurreikusten duenari,...”

Gure aburuz, baldintza-orriak zerbitzu-ematearen hasiera-unea finkatzeko ezartzen duen prozedura, alegia, data hori egokiak diren administrazio-izapideak egiteari lotzen duena (hamabigarren klausula), teknikoki zuzena eta legezkoa da, eta lizitatzailerei hasiera-data ezagutzea ahalbidetzen die, izapide horietarako baldintza-orriak berak

(1) Nafincok emandako informazioaren arabera, interes-tasa hori Nafarroako Gobernuak Krisialdian dauden Enpresei buruzko Foru Legearen babesean emandako laguntzen antzekoa da.

ezartzen duen esleipenaren ondorengo 30 egun gaiko epetik aurrera.

Kontratazio-espeditentea hasteko unean zerbitzuaren hasiera-data zehatza aurreikusteko ezintasun materiala kontuan edukiz, irtenbide horrek Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorreko 211.7 artikulua betetzen du. Arau hori, kasurik onenean ere, ordezkoko aplikaziokoa da Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan.

(2) 17. orrialdea, bigarren lerroaldea: "Litekeena da espeditente honetako alderdirik eztabaidatuenetakoa izatera iritsi den zehazgabetasun horrek eragina izatea, hasieran, behintzat, enpresa lehiatzaileetan beraietan,..."

17. orrialdea, zazpigarren lerroaldea: "Nola baiteko ziurgabetasun juridikoko egoera nahasi hori ez zatekeen sortuko orain dituen ezaugarriekin baldintza-orriek zerbitzu-ematearen hasiera-data zehazki definitu izan balute."

Aurrerago adieraziko den dokumentu-frogan oinarrituz, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egiaztatutzat jotzen du honako hau: esleipena egin aurretik eta kontratua sinatu aurretik, zerbitzu-ematearen hasiera-data zehatza finkatzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zentuz eskatzekoak ziren badaezpadako neurri guztiak hartu zituela, esleipen-hartzaileak datari zegokion baldintza ulertzen zuela, onartzen zuela eta betetzeko jarduketa-plan bat bazuela ziurtatzeko; halaber, inoiz-edo nahasmen-egoerarik gertatzekotan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak hori berehala konponduko duela eta CEIMSAri behar diren argibideak eskatuko dizkiola.

Badaezpadako neurri horien funtsezko alderdiak honako egintza hauetan gauzatu dira:

- Lehiaketa arautzeko baldintza-orriek jarraituz, 1997ko ekainaren 23an, hau da, kontratua esleitu aurretik, Batzorde Teknikoak aurretiazko informazio osagarria eskatu zion Ceimsa enpresari, bere eskaintzaren ezaugarriak argitzeko; zehazki, "kontratuaren indarraldiaren hasieratik bertatik (hau da, kontratua sinatu eta biharamunean) horren xedea erabat betetzeko eta, ondorioz, gaurregungo edo etorkizuneko behar guztiak asetzeko" bere asmoa argitzeko. Ezbairik gabe, edozein zalantza egotekotan, egintza horren bitartez argitua geratu zen.

- Ekainaren 24an enpresa horrek erantzuna eman zuen. Bertan, enpresak bermatu egiten zuen prest zegoela zerbitzua ematen hasteko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak horretarako agindua eman eta berehala, gaurre-

gungo zein etorkizuneko beharizan guztiei aurre eginez, baldintza bakarra egokiak ziren administrazio-izapideak aurretiaz eginak egotea izanik. Hori ikusirik, aipaturiko Batzordeak CEIMSAren aldeko esleipen-txostena egin zuen, 1997ko ekainaren 25ean.

- 1997ko uztailaren 3an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendari Gerenteak Erabakia eman zuen, horren bitartez kontratua Ceimsa enpresari esleituz, eta zehazten zuen esleipena 1997ko iraila-abendua eperako zela, zenbatekoa lau hilabete horiei zegokien guztia izanik. Horrek argitu egiten ditu formalizatu beharreko kontratuaren hasiera-datari buruzko zalantza guztiak, baldin eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Ceimsa ematera ez doan zerbitzu batzuk ordain ditzala nahi ez bada, behintzat.

- Uztailaren 28an Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jarduketa-programa xehekatua eman zezala eskatu zion Ceimsa enpresari, zerbitzu-ematea hasteko, CEIMSAk alde aurretik hitzartu zituen baldintzetan, berriro ere esanez data esleipenetik eratorritakoa baizik ez dela, hau da, irailaren 1eko zero orduak.

- Abuztuaren 11n CEIMSAk bere jarduketa-plana aurkeztu zuen, eta horretan berretsi egin zituen aipaturiko data hori, irailaren 1a, errespetazeko bere prestaketa eta ahalmena.

- Abuztuaren 14an sinatu zen kontratua, eta CEIMSAk emandako jarduketa-plana berriro sinatu eta haren elementu osatzaile bilakatu zen.

Kontuen Ganbarako txostenak berak azalpena egiten duen zatian aipatzen dituen dokumentu-frogak agerian uzten dituzte jarduketa horiek guztiak, eta CEIMSAk une bakar batean ere ez du nahasmen, zalantza edo ziurgabetasunik agertzen hartutako konpromisoei dagokienean.

Adierazi nahi da, halaber, aipaturiko lerroaldek espekulazioan murgiltzen direla, honako baieztapen hau egiten baitute balizko zehazgabetasun horri buruz: "Litekeena da [...] zehazgabetasun horrek eragina izatea, hasieran, behintzat,..." Ez dute kontuan hartzen zehazgabetasun hori somatzeko modukoa baldin bazen lehiatzaileek Administrazioari argibideak eskatu ahal izan zizkiotela, eta ez zutela horrelakorik egin.

(3) 17. orrialdea, laugarren eta bosgarren lerroaldeak: "Uztailaren 28ra arte itxaron behar da, O-NOZek Ceimsa argi eta garbi eta zehaztasunez ohartarazteko ekipo guztiek 1997ko irailaren 1ean ordeztuta egon behar dutela.

Aurkezturiko ordezketa-plan baten bitartez onartu zuen enpresak konpromiso hori, eta abuztuaren 14an izenpetutako kontratu-dokumentuan formalizatua izan zen. Dokumentu horri, eranskin gisa, aurreko inkorporazio-plana gehitu zitzaion;...”

Berriro, adierazi behar dugu kontratuak esleipenaren unetik beretik definitua zegoen zerbitzu-ematearen hasiera-data errepikatu besterik ez duela egiten. Data hori CEIMSAk ezagutzen zuen eta behin eta berriro onartu zuen, kontratua sinatu aurretik, kontratua sinatzean eta kontratua sinatu ondoren. Kontratu horrek, CEIMSAren aurretiazko argibideak dioenaren eta esleipen-erabakiak aurreikusitakoaren arabera, adierazitakoaz beste datarik ezin zuen eduki.

Baieztapen horren zehaztasuna egintzek agertzen dute, bestela ezin izango bailitzateke ulertu CEIMSAk ez desadostasunik, ez harridura edo inolako kontrako jarrerarik ez agertzea kontratua sinatzea dela-eta.

(4) 18. orrialdea, bigarren lerroaldea: “Gainera, Administrazioak berak aurreko esleipen-hartzaileari zerbitzu-ematearen jarraipena exijitu ahal izan zion, zerbitzu publikoaren oinarriko eta funtsezko izaera kontuan edukiz.”

Gure ustez, iritzi hori ematean ez da kontuan hartu CEIMSAk, beranduago betetzeko gauza izan ez zen konpromiso bat bere gain hartzeko eta aldarrikatzeko agertu zuen azkartasuna eta errepikaturiko borondatea direla-eta, Administrazioari legitimazioa eragotzi ziola aurreko esleipen-hartzaileari zerbitzu-ematearen jarraitasuna galdatzeko, CEIMSAk hartu zuen konpromisoak ez baitzuen inposaketa hori a priori beharrezko egiten.

Administrazioak jarraitasun hori inposatzeko legitimazioa CEIMSAk hartutako konpromisoak bete ez dituela egiaztatzen den momentutik aurrera bakarrik izan du, eta horixe egin du. Egiaztapen horrek berarekin zekarren, nahitaez, kontratua amaiarazteko espedienteak hastea.

Legez onartezina da indarreko kontratuko baldintzen kontrako zerbitzu-ematea, txostenak aipatzen duena, jarrai dadila inposatzea, konpromisoak bete ez dituen enpresa sartzeari errazteko helburu hutsarekin egin nahi baldin bada.

(5) 17. orrialdea, azken aurreko lerroaldea: “Ceimsa enpresa baldintzak betetzeko egoeran aurkitzen zela modu fedemailean eta are fisikoki egiaztatzeko Administrazioak kontratuak indarra hartu aurretik eginiko ezin jarduketaren konstantzia espresurik ez dago, funtsezko kuestio horrek

hautapen-prozesu osoan zehar eragin zizkion susmo eta zalantza guztiak gora-behera.”

Txostenak ez du azaltzen espedienteen konstantziarik ez duten egiaztatze-jarduketa fedemaile eta are fisikoen helburuak zein izan beharko lukeen; gai horri dagokionean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak dio jarduketa horiek ezin izango zuketela ez-betetze presuntzioaren ondoriozko kontratu etete eta amaiazpenik erakarri, horrek esleipen-hartzailearen indefentsioa ezezik Administrazioarentzat legezko ondorio larriak ere sortaraziko baitzituzkeen, jarduketa justifikagaitz bati loturikoak, alegia, gertatu ez diren edo frogatu ez diren ez-betetzeengatik zehapen-neurriak hartzeari; gainera, zerbitzuaren jarraitasunari berari begira ere nahasmendu handiagoa eragingo zuketean.

(6) 18. orrialdea, hirugarren lerroaldea: “Ekipo-ordezketa hilabeteko aurrerapenez ezin zuela egin ohartu baldin bazen, Ceimsa enpresak espreski adierazi beharko zukeen, bere inkorporazio-planean horixe adieraziz eta ez kontratuan bertan sinatuz.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aburuz, hauxe da funtsezko elementua espediente honen garapenean, eta, kopiatu dugun lerroaldean agertzen dena egia izanik ere, honakoa egiazkoagoa da eta frogatu daitezkeen gertakariei atxikiagoa dago:

- Ceimsa enpresa ohartu baldin bazen data jakin bat –data hori edozein izanik ere– baino lehenago zerbitzua ematen hasteaz ezin zela arduratu, prozedura-une egokian azaldu beharko zukeen; hain zuzen, esleipena egin aurretik Batzorde Teknikoak eskaintzaren puntu bat, zerbitzu-ematearen hasiera-datari zegokiona, argitzea eskatu zionean. Horrela, Administrazioak aukera izango zuen esleipen-erabakia eta kautelazko neurri egokiak batera aztertzeko.

- Horretaz gain, esleipena egin zenetik kontratuak indarra hartu bitarteko edozein unetan Ceimsa enpresa ohartu baldin bazen ezin zuela harturiko konpromisoa bete, Administrazioari jakinarazi beharko zion, berehala eta modu fedemailean, eta ez zuen hori egin; horrek astundu egiten du enpresa horren ez-betetzean dagoen erruduntasun-ezaugarria.

Gure iritziz, bi puntu horiek behar bezala agertu gabe ez da posible txostenaren edukia osatzen duten gertakari eta jarduketari buruzko azalpen eta ondorio zuzenik formulatzea.

(7) 18. orrialdea, seigarren lerroaldea: “Hala ere, lehiaketa arautzen duten baldintza-orrietan ez



da aurreikusten “bitarteko aldi” dei genezakeena, enpresa kontratista ordezten den kasurako. Kontratazioari buruzko indarreko araudiak horrelakorik eskatzen ez duen arren, administrazio onaren alorreko printzipioen artean aurreikusi beharrekoa dela dirudi,...

Kontuen Ganbarak bere txostenean egiaztatu du kontratazioari buruzko indarreko araudiak ez duela galdatzen “bitarteko aldi” deitzen duena lehiaketa arautzen duten baldintza-orriek arautzea. Kasu honetan, bitarteko aldia ez da arautu; batetik, arauak ez duelako galdatzen, eta, bestetik, desegoki jotzen delako Administrazioak prozesu bateko baldintzak ezartzea, prozesu horren beharra argi ez dagoenean –lehiatzaile bat baino gehiago egongo dela eta esleipen-hartzailea aldatuko dela lehiaketa baino lehenago gauza jakina denean izan ezik– eta prozesu hori esleipen-hartzaile berriaren egoera zehatzaren menpekkoa izanik, ezereen menpekkoa izatekotan.

Dirudienez, txostenean agertzen den iritzia hauxe da: lehiaketa arautzen duten baldintza-orriak direla kontratazio-prozesu bateko gorabehera guztiak aurreikusteko Administrazioak erabili behar duen bitartekoa, araudiak berak xedatzen duena baino areago ere, era horretan arazo errealeko edo potentzial guztiak aldeztetik saihesteko.

Gai horri buruz, zera adierazi behar dugu: epe hori arautua ez egoteak ez duela esan nahi existitzen ez denik. Begi-bistakoa da Ceimsa enpresak bitarteko aldi bat izan duela esleipen unetik–1997ko uztailaren 3a– kontratuak indarra hartu duen arte –1997ko irailaren 1a–, eta horren froga da epe horretan ekipo-kopuru jakin bat erosi edo fabrikatu eta instalatu duela.

Gauza ezberdina da bitarteko aldi hori nahikoa ez zela ikusi izana; hori Ceimsa enpresak eginiko aurreikuspen kaskarrari soilik egotzekoa da. Enpresa horren betebeharra eta erantzukizuna zen espreski harturiko konpromisoa betetzeko beharrezkoak ziren urratsak ematea. Edonola ere, 18. orrialdeko azken aurreko lerroaldean agertzen den iritzia, espekulatzailatzat jotzen duguna, ekipo-ordezketak “existitzen ez den denbora-tarte batean” egin behar izateari buruzkoa, errealitateak gezurtatua geratu da, CEIMSAk ekipoak instalatu eta egoera operatiboan utzi ahal izan zituela irailaren 1eko zero orduak arte, eta halaxe egin zuen, eta, instalazioa osatu izan balu, data horretatik aurrera aurreko enpresak ekipoak kendu ahal izango zituen, zerbitzuan kalterik eragin gabe.

(8) 18. orrialdea, azken lerroaldea: “Beraz, begi-bistakoa dirudi bi kontratistek aldi berean jardungo duten hasierako denbora-tarte bat beha-

rezkoa dela, hauxe bermatzeko: kontratutik horiei eratorritako eskubide eta betebeharrak zehazki betetzen direla eta, azken finean, gaixoak zerbitzuaren jarraitasunaren bitartez babestuak geratzen direla...”

Aipatu beharrekoa da “b) Bitarteko aldia” puntuaren edukian zehar txostena bitarteko aldiak hitz egiten hasten dela eta bi kontratistek aldi berean jardungo duten hasierako denbora-tarte batez hitz egiten amaitzen dela; ez dakigu kontu-ikuskatzaileak bi termino horiek baliokidetzat jotzen dituen, baina gure ustez bigarrena lehenaren forma zehatz bat besterik ez da, bakarria ez den arren.

Sartu eta irtetera doazen hornitzaileek aldi berean jardungo duten denbora-tartea aipaturiko txostenak behin eta berriro azpimarratzeak honako hau susmatzera garamatza, behar den errespetuaz: burutu nahi den ordezketak-prozesuaren logika ez dela ulertu, zeren eta, CEIMSAk hasieran egindako argizetik aurrera, hain zuzen ere aldi bereko jarduneko denbora-tarte hori saihesteko ahalegina egin baita, zerbitzu bererako bi hornitzaile mantentzeak ziurgabetasun tekniko, ekonomiko eta juridikoko egoera bat ekarriko lukeelako, nahitaez. Arrazonamendu horri gehitu behar zaio planteaturiko aukera, gure ustez, egokiena izatea, Administrazioak ez zuelako legezko nahiz kontratuzko inolako oinarririk aurreko esleipen-hartzaileari kontratu baten indarra eta ondorioak itundutako epeaz haratago inposatzeko.

CEIMSAk ekipo guztiak instalatuak eta irailaren 1eko zero orduetan egoera operatiboan egoteko beharrezkoak ziren baldintzak betetzen eduki beharko zituen, eta horretarako epea uztailaren 3tik aurrera izan zuen. Carbuosek ez zuen data eta ordu huraxe baino lehenago bere ekipoak kentzen hasi behar. Horiexek ziren, zehazki, bi enpresen betebeharrak, eta horri heldu zitzaizkion alderdi guztiak, Administrazioa barne, zeinak, irailaren 1ean bertan, Carbuosek jarrai zezala agindu baitzuen eta CEIMSArekin sinaturiko kontratua amaiazteko espedienteak hasi baitzuen, gaixok zerbitzua izaten jarraitzeko zeukatzen eskubidea Administrazioaren eskura zegoen bitarteko baka-rraren bidez babestuz.

(9) 19. orrialdeko hirugarren lerroaldeak “...Administrazioak datu-base guztiz fidagarri bat eskaini behar du,...” esaten du, eta, horri dagokionez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak argi utzi nahi du datu-base hori ez dela zerbitzuek ematearen oinarritzko elementu bat, horren helburua nagusiki administrazio-izaerakoa delako, eta, ekipoen instalazioa erraztearren, espreski jakinarazi zitzaion CEIMSAri edozein zailtasun izatekotan Prestazio eta Itun Zerbitzuari eskatu behar

ziola behar zuen informazio gehigarria. Zerbitzu horrek Osasun Txartel Indibidualeko datu-basetik, fakturaziotik edo kasuan kasuko zerbitzutik lortuko zuen informazioa. Aipatu beharrekoa da egiaztatu egin dela CEIMSAk zortzi gaixorentzat bakarrik eskatu zuela informazio gehigarria –eta eman egin zitzaion–; beraz, ondorioa hauxe da: datuen eskuragarritasuna ez zen elementu erabakigarria izan enpresa horren ez-betetzera.

Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko txostena ikusirik, frogatutzat jo behar da ez dela egon CEIMSAren ez-betetzea justifika dezakeen eta Administrazioari egotzi beharrekoa den inolako informazio-problemarik. Aipaturiko datu-basea ez da erabat fidagarria, eta, ziur aski, bakar bat ere ez da izango, baina ez litzateke esan gabe utzi beharko orokorki eskuragarri dagoen informazioa lortu nahi den helbururako behar bezain fidagarritzat jotzen den ala ez.

Alegazio hauen azken laburpen gisa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak honako hau azaldu nahi du:

a) Bat dator txosteneko ondorio zentralekin, bai Administrazioaren jarduketari dagokionean –kontratuaren, legezko xedapenen eta ezarritako prozeduraren arabera jarduketa izan da– bai CEIMSAren jarduketak, ez-betetzea dela-eta, prozesuaren azken emaitzan izan duen eragin erabakigarriari dagokionean ere.

b) Administrazioak jardutean ustez izan dituen akatsei dagokienean gure desadostasuna agertu dugu, behar adina arrazoituz, gure iritziz. Txoste-

nak ez ditu akats horiek behingoz ere prozesu honen azken emaitzarako erabakigarri gisa agertzen.

c) Kontuen Ganbara horri espreski eskatzen zaio alegazioaren gaia izan den behin-behineko txostenaren edukia alda dezala, bereziki alegazio hauetako 2., 4., 6. eta 8. puntuen edukiari dagokionean, horietan jasotakoa errealtate frogagarriarekin guztiz bat datorrela eta Ganbara horrek ondorioak prestatzean gogoan edukitzeko adinako garrantzia duela uste izateagatik.

Iruñean, 1998ko ekainaren 12an.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendari Gerentea: Víctor Calleja Gómez.

## 2. ERANSKINA. OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBARAK EMANDAKO ERANTZUNA

1998ko ekainaren 12an sartu dira Kontuen Ganbarako erregistro orokorrean behin-behineko txostenari Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak aurkezturiko alegazioak.

Horien edukia aztertu ondoren, Ganbara honek pentsatzen du ez dutela ezer berririk esaten espedientean aurkitzen den dokumentazioari dagokionean; beraz, bere txosteneko ondorio guztiak berresten ditu, txostena behin betiko bihurtzen du eta horren eranskin gisa gehitzen du aipaturiko alegazio-idazkia, gai honi buruz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak duen ikuspegia agertzen duenez gero.

|  |   |
|--|---|
| <p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat ..... 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 170 » .</p> | <p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p> |
|--|---|